

HONDARRIBIKO
ANDRE MARIA JASOKUNDEKOA
HISTORIA, ARKITEKTURA ETA ARTEA

Sta. MARÍA DE LA ASUNCIÓN
DE HONDARRIBIA
HISTORIA, ARQUITECTURA Y ARTE



SAN MARTIN, Juan

Hondarribiko Andre María Jasokundekoa : historia, arkitektura eta artea = Sta. María de la Asunción de Hondarribia : historia, arquitectura y arte / Juan San Martín ; argazkiak, José Manuel Susperregui eta Juan San Martín ; irudiak, Yulen Zabaleta eta Oier San Martín. - [Donostia-San Sebastián] : Gipuzkoako Foru Aldundia, Ondare Historiko-Artistiko eta Museo Zerbitzua.

D.L.: S.S.1371/98

99 p. : il. ; 29 cm

Bibliografía. - Indices

ISBN: 84-7907-231-8

I. Iglesia de Santa María de la Asunción (Hondarribia) - Historia

I. Susperregui, José Manuel, il. II. Zabaleta, Yulen, il. III. San Martín, Oier, il. IV. Gipuzkoa. Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico y Museos, ed. V. Tit. .

HONDARRIBIKO ANDRE MARIA JASOKUNDEKOA
HISTORIA, ARKITEKTURA ETA ARTEA

Sta. MARÍA DE LA ASUNCIÓN DE HONDARRIBIA
HISTORIA, ARQUITECTURA Y ARTE

JUAN SAN MARTIN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

KULTURA ETA EUSKARARAKO DIPUTATUA: Konko Aizarna Rementeria
KULTURAKO ZUZENDARIA: Luis Mari Oyarbide Arizmendi

ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKO ETA MUSEO ZERBITZU-BURUA: Gabriela Vives
HONDAKIRIBIKO ANDRE MARIA JASOKUNDEKOA. HISTORIA, ARKITEKTURA ETA ARTEA.
L.G.: S.S.1371/98

I.S.B.N.: 84-7907-231-8

© EDIZIOA: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara
Departamendua, Ondare Historiko-Artistiko, Agiritegi eta
Museo Zerbitzua.

© TESTUA: Juan San Martin.

© ARGAZKIAK: José Manuel Susperregui eta Juan San Martin.

© IRUDIAK: Yulen Zabalaeta eta Oier San Martin.

© ITZULPENA: Euskararen Normalizatzeko Zuzendaritza Nagusia, TISA

DISEINUA: Txoria Errekan, S.L. Xabier Otero.

MAKETAZIOA: Oier San Martin.

FOTOGRAFIAK: ZYMA.

INPRIMAKETA: Gráficas Zubi.

SARRERA

Gipuzkoako erlijio-monumenturik bikainenetak eta interesgarrienetak bat dugu Hondarribiko Jasokundeko Andre Mariaren eliza, zeina begiestea pribilegio bat baita, zalantzarik gabe, bertakoentzat nahiz kanpokoentzat. Erti-lan baliotsua dela gauza nabaria izan arren, berari buruz ez zegoen oraindaino inolako monografiarik, hots, haren gako guztiekin ulertzeko egokiera eskainiko zigun azterketarik gabe geunden. Orain, berriz, Juan San Martinek, gure inguruko gauza ederrekiko eta apartekiko sentiberatasun berezia daukan norbait izaki, hutsune garrantzitsu hori betetzea hartu du xedetzat, honako lan hauxe atonduta, argitaratzearen ardura geure gain hartu dugularik. Kultura eta Euskara Departamentuari, bada, pozgarri zaio halako monografia bat Ondare bildumaren barruan edukitzea, ekarpen handia egiten baitigu Gipuzkoako kondaira- eta erti-ondarea hobeki ezagut dezagun.

Juan San Martinek mamitutako beste hainbeste lanekin bezala –kondaira, filologia, erti, eta abarrekoak–, honekin ere ikerketa urte askoren emaitza gureganatu digu, era argian eta pedagogikoan gureganatu ere. Gainera, begirunezko sentimendu bat helarazten digu, ez bakarrik monumentu horrekiko, baita ere belaunaldiz belaunaldi egun duen irudia hartzen lagundu duten pertsonetikiko. Hona hemen Juan San Martinek helburu izan duena: tenplu honen kondaira, arkitektura, eta erti-erakusgarrien ezagutzan sakontzea, gure aburuz aski eta soberan bete duen helburua, alegia. Eta gaurgero abagune paregabea dugu monumentu hau begietsiz gozamina hartzeko, eta poz handia hartzen dugu horrela, zeren eta azkenik argi azaldu baitira arkitektura- eta erti-arloetan dituen gakoetako asko eta asko, egundaino aski ezezagunak edo gaizki ulertuak izan direnak. Lerro hauek amaitu aurretik ezinbestekoa dugu Juan San Martini geure eskerrik beroenak ematea lan honi halako arreta berezia ipintzeagatik –ongi dakit nik–, hainbeste ordu emanda ikertzeari, jatorrizko agiriak xeheki irakurtzeari, eta landa-lana egiteari. Amaitzeko, zoriondu egin nahi genuke, norberarentzat poz-iturri opa-roa delakoan, ikertzen buru-belarri jardun ondoren, halako egitasmo bati buru eman ahal izana.

KORUKO AIZARNA REMENTERIA
Kultura eta Euskararako Foru Diputatua

INTRODUCCIÓN

La iglesia de Santa María de la Asunción de Hondarribia es uno de los monumentos de carácter religioso más interesantes y bellos de Gipuzkoa, cuya contemplación constituye, sin duda, un privilegio para propios y extraños. A pesar de su indudable valor artístico no contaba con ningún estudio monográfico que nos permitiera interpretarla en todas sus claves. Juan San Martín, persona particularmente sensible hacia las cosas bellas y extraordinarias de nuestro entorno, se ha propuesto llenar esta importante laguna elaborando este trabajo de cuya edición nos hemos responsabilizado. Para el Departamento de Cultura y Euskera es una satisfacción dar cabida a esta monografía dentro de la colección Ondare por lo que este libro supone de aportación para el mejor conocimiento del patrimonio histórico-artístico de Gipuzkoa.

Como en tantos otros trabajos de carácter histórico, filológico, artístico..., Juan San Martín nos proporciona el resultado de años de investigación de una forma clara y pedagógica, transmitiéndonos, además, un sentimiento de respeto por este monumento y por los hombres que en sucesivas generaciones han contribuido a darle su imagen actual. Profundizar en la historia, arquitectura y manifestaciones artísticas de este templo ha sido el objetivo de Juan San Martín; creemos que se ha cumplido con creces. Desde hoy todos podemos disfrutar de la contemplación de este monumento con la satisfacción de que muchas de sus claves arquitectónicas y artísticas, hasta ahora poco conocidas o malinterpretadas, han quedado desveladas. Estas líneas no pueden concluir sin hacer llegar nuestro agradecimiento a Juan San Martín por la dedicación tan especial que ha tenido a este trabajo, tal y como me consta, empleando tantas horas de investigación, de lectura minuciosa de originales y de trabajo de campo. Finalmente, transmitirle nuestra felicitación porque consideramos que el poder dar culmen a un proyecto, como es el caso, en el que el investigador se implica tan profundamente, constituye en sí una importante fuente de satisfacción personal.

KORUKO AIZARNA REMENTERIA
Diputada Foral de Cultura y Euskera

"Elizak Bidasoako katedrala dirudi..."

*"Ojiben grazia zutabeetan oinarritzen da
eta ekuazioen kalkuluan arkuen hegala."*

Leonardo Urteaga

"La iglesia es como una catedral del Bidasoa..."

*"La gracia de las ojivas se apoyó en las columnas
y el vuelo de los arcos en el cálculo de las ecuaciones."*

Leonardo Urteaga

HITZAURREA

Juan San Martinek, bizileku berria hartu zuelarik, Hondarribia aukeratu izana zorioneko berria izan zen, ezeren zalantzarik gabe, gure hiriarentzat, zeren eta bera-kin batera ekarri baitzuen bere ikerlanen interesgunea, eta bere histori eta literatur lanena.

Eta kontua ez da lehendik Hondarribiko gai eta artistekin kultur harremanik ez zuela, baizik eta orain hauek areagotu egingo zirela.

Gure herriko pertsona ospetsu batekin izandako estreinako harremana gaztarokoa du, eta jaio zen Eibarren bertan gauzatua. Hantxe baitzegoen, lagunkidetzat, Rafael Artola apaiz hondarribiarra, San Martinek izan zuen lehen-biziko euskal gramatikako maisua bera. Eta hazi hura erne egin zen, halako moduan ezen, denborak aurrera egin zuelarik, ikasle gaztea Euskaltzaindiaren lehendakariorde izateraino heldu baitzen.

Juan San Martinek gogorazi ohi dit nik neuk ere, hondarribiarra naizela aurreko hura bezalaxe, parte izan nuela bere literatur bizitzan, "Juan Antonio Mogel. Bere bizitza ta lanak" bere lehen liburua (1959) egin eta argitara eman zuenean neu izan bainintzen estreinako elkarrizketa egin ziona, gero El Bidasoa astekari irundarrean argitaratuz; izan ere, aipatu hauxe zen gaiaren inguruan halako interes bat adierazten zuen bakarra. Idazle gaztearengana hurbiltzeko lagun, Nikolas Alzola (Anaia Balentin Berriotxo "Bitaño") izan nuela dut gogoan, gure artean bizi baitzen Bidasoa inguruko kulturaren aldeko langile porrokatu hura, eta Juan San Martinek eta biek harreman estuak izan zituzten aurrerantzean.

Idazle eibartarrak Klaudio Sagarzazu "Satarka" poeta ezagutu nahi izan zuen, eta Fernando Artola "Bordari" bitartekari zuela, Hondarribira jo zuen San Martinek, egun osoko solasaldi luze batean murgiltzeko, bazkaria ere tarteko, aipatutako bi poetekin. San Martinek nik neuk oso atsegin handiz entzuten diodan zerbait esan zion, nik uste, "Satarka"ri, poetak idatzitako "Txinpartak" liburua irakurriz piztu zitzaiola, hain zuzen ere, bere kultur abertzaletasunaren garra; liburu hau, gerra zibilaz geroztik desagerturik zegoen.

Hondarribia erakargune garrantzitsua izan da, eta bada oraindik ere, artista eta intelektualentzat, eta gure herrira heldurik laster batean bertakotzen dira, zorionez. Hondarribiartzat harturiko hauekin, eta bertako-bertakoe-kin, San Martinek beti izan ditu harremanak, eta dagoeneko aipatu ditugun idazleei beste izen asko erants diezaie-kegu, hala nola Oteiza, Basterretxea, Mendiburu, Javier Sagarzazu, Albizu, Grazenea, Martín Ugalde, J.L. Arbelaiz, Ortega Spottorno, J.A. Letamendia eta J.P. Zabala, besteak beste.

PRÓLOGO

Que Juan San Martín, al cambiar de residencia, fijara la nueva en Hondarribia fue, sin duda, una suerte para nuestra ciudad, ya que con ello trasladaba también el foco de interés de sus investigaciones y de sus trabajos históricos y literarios.

Y no es que antes no hubiera mantenido relaciones culturales con temas y artistas hondarribiarras, sino que ahora las aumentaba.

Su primera relación con una personalidad de nuestro pueblo hay que situarla en su juventud y en su Eibar natal. Allí se hallaba destinado, como coadjutor, el sacerdote hondarribiarra D. Rafael Artola con quien San Martín comenzó a estudiar gramática vasca. Y aquella semilla fructificó hasta tal punto que, corriendo el tiempo, el joven alumno llegó a ser, nada menos que, vicepresidente de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia.

Suele recordarme Juan San Martín que también yo, hondarribiarra, intervine en los inicios de su vida literaria ya que cuando publicó su primer libro Juan Antonio Mogel. Bere bizitza ta lanak (1959) fui yo quien le hizo la primera entrevista publicándosela en el semanario irunés El Bidasoa, por entonces la única publicación sensible al tema. Recuerdo que visité al joven escritor acompañado por Nicolás Alzola (el Hermano Valentín Berriochoa "Bitaño"), otro residente entre nosotros y gran trabajador en pro de la cultura bidasoarra, con quien también mantuvo estrechas relaciones Juan San Martín.

El escritor eibarrés quiso conocer al poeta Claudio Sagarzazu "Satarka" y sirviendo de intermediario Fernando Artola "Bordari", San Martín se trasladó a Hondarribia para mantener, comida incluida, una larga conversación de día entero con los dos poetas citados. Supongo que le diría a "Satarka" algo que yo suelo escucharle muy complacido y es que a San Martín se le encendió la llama de su patriotismo cultural leyendo el libro Txinpartak de "Satarka", obra que a raíz de la guerra civil había desaparecido.

Hondarribia ha sido y sigue siendo un importante foco que atrae a artistas e intelectuales que al llegar a nuestro pueblo suelen adquirir, por suerte, carta de naturaleza. Con ellos, hondarribiarras de adopción, y con los de no adopción, ha mantenido siempre relaciones San Martín, y así a la lista de los escritores citados podemos añadir los nombres de Oteiza, Basterrechea, Mendiburu, Javier Sagarzazu, Albizu, Grazenea, Martín Ugalde, J. L. Arbelaiz, Ortega Spottorno, J. A. Letamendia, J. P. Zabala, etc.

Juan San Martín (apellido que le viene del caserío del mismo nombre, con su ermita aneja, en el camino eibarrés a Compostela) fue, de 1978 a 1985, asesor de Bellas Artes

Juan San Martín (Konpostelako bidearen zati eibartarrean, baseliza erantsirik duen izen bereko baseritik datorkio abizena), Gipuzkoako Arte Ederretako aholkulari izan zen 1978tik 1985era arte, eta orduan interes berezia agertu zuen Hondarribiko alde zaharreko Monumentu Inguruarekiko, eta Kale Nagusiko bidezorua Kultura Ministerioaren diruez konpontzeko gestioak egin zituen. Beste bi kargu ofizial ere izan ditu San Martinek: Eusko Kontseilu Nagusiaren Zientzia eta Kultur Erakundeen Zuzendariarena, eta Arartekoarena, bera izan delarik historia osoan eginkizun hau bere gain hartzen lehenbizikoa. Eta aipatzekoa ere bada horren erakunde berrian kargua zuen pertsona Europäisches Ombudsmann Institut delakoaren, hots, Ombudsmanen Europar Institutuaren lehendakariorde izendatu zutela 1993an, eta hurrengo urtean Lehendakari izatera heldu zela; kargu hau laga egin zuen gero, Arartekoarenarekin batera hain zuzen. Izendapen hau zela eta, denbora batez Hondarribitik kanpo bizi behar izan zuen, eta herrialdez herrialde bidaiatzeari ekin zion, laneko kontuez. Hala ere, denbora horretan zehar ere ez zion utzi Hondarribiko gaien inguruan ikertzeari eta Udaleko Euskara sailak argitaratzen duen Hondarribia aldizkarian laguntzeari, ez zegoenetik ere lortuz eginkizun hauetarako astia. Esandakoaren lekuko ditugu ohiz bidaltzen zituen kolaborazioak, sekula hutsik egiteke, gai garrantzitsuak eta unean-uneko interesekoak landuz. Izan ere gure kulturari buruzkoetan, zail da honi abaguneak edo datuak itzuri egitea.

Egin dituen ikerlanei dagokienean, aitortu behar dugu berak etorri behar izan zuela -1983- Jaizkibel mendia historiaurre eta arkeologiarako aparteko interesgune bihurtu zedin, paleolito eta neolito aroekin loturiko aurkikuntza aipagarriez, eta kobazuloetako bizitzaz. San Martinek "Aranzadi" Zientzi Elkartearentzako txostena egin zuen, eta Jesus Altuna eta Julio Caro Baroja ekarri zituen "in situ" azter zezaten aurkitutakoa; egindako aurkikuntzetako batzuk "Gipuzkoako Arkeologi Kartan" daude dagoeneko.

Juan San Martinek egin duen Hondarribiko baserri guztien katalogazioa ere nabarmenezko modukoa da, zeren eta izen bakoitzari erantsi baitzikio eskuartean darabilen agiri pila itzelean aurkitutako histori aipamen guztiak. Eta agiriez ari naizela zera esango dut, interes bereziko zerbaitekin topo egiten duenean Udal Artxiboari eta Bibliotekari kontsulta egiten diela, dagoeneko beraien fondoetan jasota ote dagoen; eta jasotzeko baldin badago, fotokopia bat egin eta fondo horietan lagako du, horrela lagunduz, gainera, gure ondarea aberasten. Denotzat jarraibide bikaina dugu, zalantzarik gabe!

Hondarribian bizi den idazle eibartar hau, irakurleak eskuartean duen oraingo honekin hogeiren bat libururen egile da. Euskaraz eta gazteleraz eginak ditu, eta bere testuetan literatura, historia, etnografia eta artea lantzen dira, aditua baitugu San Martín horrelakoetan.

para Guipúzcoa y entonces se interesó especialmente por el Conjunto Monumental del casco viejo hondarribiarra y gestionó que, con fondos del Ministerio de Cultura, se arreglara el pavimento de la Calle Mayor.

Otros dos cargos oficiales más ha ostentado San Martín: el de Director de Ciencias e Instituciones Culturales del Consejo General Vasco y el de Ararteko o defensor del pueblo, siendo el primero en la historia, en quien recayó dicha misión. Por cierto que es digno de subrayarse que persona en institución tan reciente fuera nombrada en 1993 vicepresidente del Europäisches Ombudsmann Institut, es decir, el Instituto Europeo de Ombudsman y que al año siguiente fuera elevada a Presidente, cargo en el que cesó, al hacerlo en el de Ararteko. El nombramiento le obligó a vivir temporalmente fuera de Hondarribia y a viajar por diversos países. Pues bien, hay que decir que en todo ese período, robando tiempo al tiempo, no dejó de investigar sobre temas hondarribiarras y de colaborar en la revista Hondarribia que edita el departamento de Euskara del Ayuntamiento. Obsérvese su asiduo envío de colaboración, sin faltar a la cita, y tratando asuntos de importancia y de interés puntual. En temas de nuestra cultura, difícilmente se le escapan ni la oportunidad ni el dato.

En cuanto a las investigaciones hay que decir que tuvo que venir él a vivir entre nosotros - 1983 - para que el Jaizkibel se convirtiera en un excepcional campo de interés prehistórico y arqueológico, con importantes descubrimientos relacionados con el paleolítico y el neolítico y con formas de vida rupestre. San Martín hizo el correspondiente informe para la Sociedad de Ciencias Naturales "Aranzadi" y trajo para que examinaran "in situ" lo descubierto a Jesús Altuna y Julio Caro Baroja; parte de sus hallazgos figuran ya en la "Carta Arqueológica de Guipúzcoa".

Hay que destacar también la catalogación que tiene hecha Juan San Martín de todos los caseríos de Hondarribia adjuntando a cada nombre cuantas citas históricas encuentra en los muchos documentos que maneja. Y hablando de documentos diré que cuando tropieza con alguno de especial interés consulta con el Archivo y Biblioteca municipales por si tal documento no constara ya en sus fondos; y si así es obtiene una fotocopia y la deposita, aumentando con ello nuestro patrimonio. Ejemplar conducta.

El escritor eibarrés, afincado en Hondarribia, es autor de, con este que el lector tiene en sus manos, una veintena de libros. Sus obras, tanto en euskara como en castellano, hablan de literatura, historia, etnografía y arte, temas en los que San Martín es experto.

Mas de media docena de libros tratan asuntos de arte. Pero yo quiero recordar antes aquellos trabajos cortos, en



2. Egilea, eliz sabaiaren ikerketan.

2. El autor, durante sus investigaciones de la cubierta del templo.

Arte liburuetan dozena erditik gora ditu. Baina Donostiako La Hoja del Lunes-en San Martinek, euskaraz eta gazteleraz, argitaratzen zituen lan labur haiek gogoratu nahi ditut nik, ezen kultur gaiak ukitzen zituen eta, beraz, baita artea ere, aho-betegarri, lerro gutxitan azaldu-tako gaietan sakontzeko gogoia eragiten baitzioten irakurleari. Kazetaritzako lan haiek hiru aletan bildu zituzten gero.

Azaldu-tako jakinduria soinean, arte eta historian dituen ezaguerak nabarmen geratzen baitira (duela gutxikoa du José Camón Aznar-en El escultor Juan de Anchieta liburuaren bigarren edizioari eginiko hitzaurrea, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatua, arte estiloei buruz eta batez ere imajineriaz San Martinek duen ezagutza sakonaren adierazle) Hondarribiko Andre Maria Jasokundekoa. Bere Historia, Artea eta Arkitektura liburuari ekin dio. Elizari buruzko lehenbiziko berrien eta historiaren azterketa, Baionako apezpikutegiaren mendean zegoenetik Iruñekora igaro zen artekoa. Tenpluaren arkitekturaren eta arte aberastasunaren azterketa. Liburu honen hirugarren zatian, López del Vallado jesuita aditu eta jakintsuak, mende hasieran, gure parrokiako arkitektura eta arteari buruz egin

euskara y castellano, que San Martín publicaba en La Hoja del Lunes, de San Sebastián, sobre temas culturales, y por lo tanto también de arte, que constituían un “aperitivo” en el sentido más estricto de la palabra, ya que estimulaban las ganas de entrar en los temas. Aquellos trabajos periodísticos fueron luego recogidos en tres volúmenes.

Con el bagaje expuesto, en el que quedan demostrados sus conocimientos artísticos e históricos (reciente es el prólogo a la segunda edición de la obra El escultor Juan de Anchieta de José Camón Aznar, encargado por la Diputación Foral de Guipúzcoa, en el que muestra San Martín sus profundos conocimientos sobre estilos artísticos, principalmente en imaginería) ha acometido su libro Santa María de la Asunción de Hondarribia. Su historia, Arte y Arquitectura.

Un estudio de las primeras noticias y de la historia de la parroquia, desde su dependencia al obispado de Bayona hasta su traslado a la de Pamplona. Examen de la arquitectura del templo y de su riqueza artística. Publicación, en la tercera parte de este libro, del informe que al comienzo de siglo hiciera el experto y docto jesuita López del

zuen txostenaren argitalpena dator, orain artean sekula ez baitu argia ikusi. Ohar atal zabala, datuz josia, eta literatur testua ilustratzen duen alderdi grafikoa.

Liburua ekarpenez blai dago, Juan San Martinek gure elizari eskaini dion denbora luze eta patxadatsuan egin dituen aurkikuntzez beterik.

Hementxe jaso da XII. mendeko arkibolta erromaniko baten aurkikuntza, elizaren hego horman sartua dagoena, dorrearen oinarriaren aldamenean, oraingo tenplu gotikoaren aurretik beste erromaniko bat izan zela adierazten diguna. Disko-formako hilarria, hau ere tenpluko hormatik oso hurbil jarria, toki honetan izandako hilerriarren aztarna eta lekukotzat. Gure eliz dorrea Nafarroako Antso VII.a Azkarrak eraikitzeke agindu zuen defentsarako dorretxe baten erlijio erabilera bilakatu dela. Eta giltzarriak eta arrosotoiak Baionako armarriaz eta Tudor Etxearen arrosa britaniarraz.

Aurkikuntza garrantzitsuetako beste bat eraikinaren kanpo egiturari buruzkoa da, ez baitzen oraingoa bezalako; gangei buruz eginiko azterketa zehatz batek paraleloan doazen harlanduzko bi murre daudela erakutsiko digu, eraikina luzera zeharkatzen dutelarik hauek, eta idibegiak ere badituztela, nahiz eta gaur egun ikustezin gertatzen diren, baina eraiki zituztenean begibistan zeuden; hau da, elizaren estalkia ez zen gaur egungoa bezalako, zeren eta zutoitarteetako bakoitzak bere estalkia baitzuen.

Elizako museoan dauden alabastrozko hiru pieza gotikoak Britainia Handian eginak direla egiaztatu ahal izateari ere goi-mailako aurkikuntza deritzot; izan ere, horien berriak Victoria and Albert Museoko English Medieval Alabasters katalogoan jasota daude.

Ekarpen baliotsuetan ari naizela zerrenda amaigabe bat gehi nezake, baina irakurleak berak orain lan hau eskuartean duelarik, hobe, zalantzarik gabe, Juan San Martín beraren prosaz jasotzea.

Eta orain konturatuko zarete zergatik esan dudan hasieran zorionekoak garela hondarribiarrok idazleak etxe aldaketa egin zuelako.

Nik harekin lagako zaituztet; Juan San Martinek Hondarribiari buruz argitaratzen duen lehen liburuarekin, ez ordea lehen lanarekin. Horrelako besterik izango al da!

Javier Aramburu Sagarzazu

Vallado sobre la arquitectura y arte de nuestra iglesia parroquial y que hasta el presente ha permanecido inédito. Amplio capítulo de notas cuajada de datos y la parte gráfica que ilustra el texto literario.

El libro está lleno de aportaciones, de descubrimientos que Juan San Martín ha realizado durante el largo y pausado tiempo que ha dedicado a nuestro templo parroquial.

Aquí está el hallazgo de una arquivolta románica, que se remonta al siglo XII, empotrada en la pared sur del templo, junto a la base de la torre, indicando que anterior al actual templo gótico hubo en el lugar otro románico. La estela discoidal, también empotrada muy cerca de la pared del templo, como resto y testimonio del viejo cementerio que allí existió. El descubrimiento de que nuestra torre parroquial es la utilización religiosa y evolucionada de una casa-torre defensiva que mandara construir el rey Sancho VII el Fuerte, de Navarra. Las claves y rosetones con el escudo de Bayona y la rosa de la Casa Tudor, británica.

Otro de los importantes descubrimientos se refiere a la estructura exterior del edificio que no era como la de ahora; un detenido examen realizado sobre las bóvedas da como resultado la existencia de dos muros de sillaría paralelos que recorren longitudinalmente el edificio y en ellos aparecen óculos, que se hallan en lugares hoy día invisibles, pero que en la época de su construcción no lo fueron, lo cual es un dato más que atestigua que la cubierta de la iglesia no era como la de hoy día, sino que cada una de las naves tenía su propia cubierta.

Descubrimiento de primer orden se me antoja la constatación de que las tres piezas góticas de alabastro existentes en el museo parroquial fueron realizadas en Gran Bretaña, y que figuran en el catálogo English Medieval Alabasters, del Museo Victoria and Albert.

Añadiría un largo etcétera de valiosísimas aportaciones que el lector tiene ya en sus manos y que debe recibirlas, no a través mío sino, directamente de la prosa del propio Juan San Martín.

Ahora se darán cuenta mejor del porqué de mis palabras iniciales en las que decía que la ciudad estaba de suerte por el cambio de domicilio del escritor.

Yo les dejo con él; con este primer libro - no el primer trabajo - que Juan San Martín publica sobre Hondarribia. Quiera el cielo que vengan más.


Javier de Aramburu y Sagarzazu

AURKIBIDEA

Sarrera	5
Javier Aranbururen hitzaurrea	9
Sarrera gisa	17
I - Elizaren historiaz	21
Lehenbiziko berriak eta Iruñeko Apezpikutegian sartu arte	23
Agiri eta arkeologi lekukotzak, sorburutik bertatik, Baionako Apezpikutegiari atxikirik zegoela, Iruñekoan sartu zen arte	39
II - Bere arkitektura eta arteaz	51
Dorrea, XII. mendeko gotorleku batean oinarritua	53
Hiru zutoitarteen egitura eta apaintzeko motibo desberdinak	59
Fatxada nagusiaren zaharberritzea eta arte osagarria, XIV. mendetik XVI.era arte	76
III - Aita Felix López del Valladoren testu argitaragabea	91
Bisitan zeharreko inpresioak	93
Tenpluaren kanpo itxura	94
Nabeen deskripzioa	95
Gotorleku batean sarturiko eliza	98
Leihateak	98
Dorrea eta izandako aldaketak	99
Ilustrazioen aurkibidea	101

ÍNDICE

Introducción	5
Prólogo de Javier de Aramburu	9
A modo de introducción	17
I - En torno a su historia	21
Primeras noticias y su incorporación al Obispado de Pamplona	23
Testimonios documentales y arqueológicos, desde sus orígenes adscrito al Obispado de Bayona hasta agregarse al de Pamplona	39
II - En torno a su arquitectura y arte	51
La torre, basada en una fortaleza del siglo XII	53
Estructura de las tres naves y los diversos motivos decorativos	59
Reforma de la fachada principal y arte complementario, desde el siglo XIV al XVI	76
III - Texto inédito del R. P. Félix López del Vallado, S. J.	91
Impresiones de su visita	93
Aspecto externo del templo	94
Descripción de las naves	95
Iglesia integrada a una fortificación	98
Los ventanales	98
La torre y las diversas modificaciones	99
Índice de ilustraciones	101



3. Eleizaren dorrea kale Nagusitik.

3. La torre de la iglesia desde
la calle Mayor.

1979 aldera; Gipuzkoako Arte Ederretako probintzi baztordeak, kontseilaria bainintzen bertan, Hondarribiko parroki elizari buruzko espediente bat egitea agindu zidan, oso urria baitzen eraikuntza horri buruz zegoen dokumentazioa, nahiz eta harresi-barruti zaharrean egon, uztailearen 4ko 1963/2.395 Dekretuaz (irailaren 24ko B.O.E.), alde zaharra Orokorri Monumentu deklaratu zuten hartan alegia. Oso denbora laburrean bildu nuen espediente bat bete eta osatzeko lain material, baina begibistakoa zitzaidan bildutakoaren urritasuna, estilo gotikoko hiru zutoitarteko oinplanoko tenplu batez ari nintzela. Lehendabiziko urrats hau egin ondoren, horrelako maila duen monumentuaren

Hacia 1979, la comisión provincial de Bellas Artes para Gipuzkoa me encomendó, en mi calidad de consejero, realizar un expediente sobre la iglesia parroquial de Hondarribia, por considerar muy escasa la documentación que se tenía sobre ella a pesar de su ubicación en el antiguo recinto amurallado, cuyo casco antiguo había sido declarado Conjunto Monumental por Decreto de 4 de julio de 1963/2.395 (B.O.E. 24 de septiembre). En breve espacio de tiempo reuní el material necesario para llenar y cumplimentar un expediente, pero no sin hacerme cargo de su insuficiencia en un templo de sus características, de estilo gótico con planta de tres naves. Tras ello se me abría

inguruan dokumentazio osoago eta onargarriagoa lortzeko erronkari nion heldu beharra, elizaren historia zein arte-arkitekturaren balorazioa ezin baitziren airean geratu.

Orduaz geroztik, nire baitan mantendu dut gaiari are sakonago heltzeko asmoa, izan ditudan eginkizun ugariek orain artean eragotzi badidate ere.

Bildu ahal izan nituen dokumentu eta erreferentzien artean, Gipuzkoako Arkitektuen Elkargoak jakinarazi zidan Deustuko Unibertsitateko Liburutegian bazela argitaratzeko eskuizkribu bat, Aita Felix López del Valladoren, hone-
xen berri jasoa baitzuen Elkargoak, Maria Asuncion Arrazolak Gipuzkoako Bepizkundeari buruz eginiko obran. Oinplanoaren kopia interesgarri bat ere eskuratu zidan Elkargoak, hau ere Aita López del Valladoren artxi-bokoa nire ustez. Halako batean helduko niola pentsatu nuen eta, ustekabez, parrokiako lagunkidea izandako Jose Ormazabal jaunak eskuizkribuaz eginiko transkripzioa eskuratu zidan; honek, garai batean, eliza honen xehetasun historikoak berrantolatzekeo interesa zuela eta, Deusturaino joateko eta bertan kopia bat egiteko lana hartu zuen. Gainera, jatorrizko eskuizkribuari berak eginiko oharrak erantsi zizkion, tenplu hondarribiarraren iragana hobeto ulertzen laguntzen duten aipamen osagarri eta iritziak erantsiz.

Aita Felix López del Valladok, 1918ko azaroaren 6an, hil baino lehenxeago hain zuzen, Hondarribiko Andre Maria Jasokundekoaren elizara egindako bisitaren eskuizkribua artxibatuta laga zuen. Ezin zelarik bestela izan gai hauetan bere jakinduria erakutsia zuen gizon batengan, parrokiako arkitekturaren azterketa tekniko aparta egin zuen, bisitan zehar ikusi ahal izan zituen erretaula, eskultura eta apaingarriei buruzko oharrez osatua bera. Eta ezinbesteko agiritzat dut, tenplu honen arkitekturaren azterketa egiteko unean oinarri.

Hasiera batean, Jose Ormazabal jaunak halako atseginez lagatako transkripzio horretatik abiatu eta, nire lana oharrak gehitzea besterik ez zela izango pentsatu nuen, tenpluko bazter guztiak nik neuk ikuskatu eta mihatu ondoren gehigarriak eginaz. Baina ez da horrela gertatu. Dagoeneko eskura nituen aurretik izandako tenplu bati buruzko arkeologi aurkikuntza batzuk eta zenbait agiri-iturri, elizaren historiaren azterketan murgiltzeko bultzatu nautenak. Izan ere, ez dugu aiantzi behar parrokia hau, artzapez-barruti txiki gisa, XVII. mendearen erdialdean Iruñeko Apezpikutegiaren mendean geratu arte Baionakoa zela. Eta berezitasun honek histori azterketa patxadatsua behar du, eta bildu ahal izan ditudan histori datu eta arkeologi lekukotza guztiak izango dit horretarako argi iturri.

Historia berezia, zoragarria esango nuke, jatorriaren ezagueran eta denboran zehar izandako bilakaeran sakonarazi didana bera. Alderdi bakoitza modu laburrean azaltzen dut, erabili ditudan agiri-iturrietako erreferentzia puntualetara jotzeko aukeraz. Dokumentazio zabal eta irekia, arkitektura monumentu eder eta preziatu honen historiari eta arte baliapenari buruz xehetasunez ikertu nahi duten guztiek erabilgarri izango dutena.

Ikerkuntzak ahalegina merezi izan duela uste dut, zeren eta Javier Aranburu adiskideak (oraingo honetan ere egin duen hitzaurre atsegina eskertu beharrean nago) egoki zioen bezala F. Porturen "Hondarribia: Notas históricas y curiosidades" (1989) monografiaren bigarren edizio zabal-

un reto de lograr una documentación más completa y aceptable sobre un monumento de su categoría, tanto en lo relativo a su historia como a su valoración artístico-
arquitectónica.

Desde entonces he mantenido latente la idea de abordar el tema con mayor profundidad, cosa que mis múltiples ocupaciones no me han permitido hasta el día de hoy.

Entre la documentación y referencias que pude reunir, el Colegio de Arquitectos de Guipúzcoa me puso al corriente de la existencia de un manuscrito inédito en la Biblioteca de la Universidad de Deusto del que fue reconocido historiador de arte el R. P. Félix López del Vallado, noticia que la tenía recogida de la obra sobre el nacimiento en Gipuzkoa de María Asunción Arrázola. El Colegio también me proporcionó una interesante copia de plano en planta que sospecho procedía del archivo de P. López del Vallado. Pensé que un día me ocuparía del mismo y, he aquí, inesperadamente, me llega una transcripción del manuscrito de mano del que fue coadjutor de la parroquia, D. José Ormazabal, quien en su día tomó interés en reconstruir los pormenores históricos de esta iglesia y se molestó en trasladarse a Deusto y realizar una copia. Además, al manuscrito original añade sus propias anotaciones como observaciones complementarias e interpretativas que ayudan a comprender mejor el pasado del templo hondarribiarra.

El R.P. Félix López del Vallado, S.J., con fecha 6 de noviembre de 1918, poco antes de su fallecimiento, dejó archivado el manuscrito de su visita a la iglesia de Santa María de la Asunción de Hondarribia. Como no podía ser de otra forma en un hombre que siempre mostró su autoridad en la materia, realizó un examen técnico muy encomiable de la arquitectura parroquial, además de otras observaciones sobre los retablos, esculturas y ornamentos que pudo contemplar durante su visita. Considero un documento de vital importancia para basarme en el estudio arquitectónico de este templo.

En un principio pensé limitar mi trabajo básicamente a partir de dicha transcripción, tan gentilmente cedido por D. José Ormazabal, al que añadiría mis propias anotaciones tras inspeccionar y escudriñar personalmente cada rincón del templo. Pero no ha sido así. En parte contaba ya con algunos descubrimientos arqueológicos y diversas fuentes documentales sobre la existencia de un templo anterior que me han inducido a un análisis de su historia. No debemos olvidar que esta parroquia, como arcipresazgo menor, desde sus orígenes hasta mediados del siglo XVII, en que pasó al obispado de Pamplona, perteneció a Bayona. Particularidad ésta que bien se merece un detenido estudio histórico, apoyándome en cuantos datos históricos y testimonios arqueológicos he podido reunir.

Una singular historia, diría hasta apasionante, por la que he profundizado en el conocimiento de los orígenes y su evolución a través del tiempo. Expongo cada parte de manera breve y escueta, con remisión a las referencias puntuales de las fuentes documentales que he utilizado. Extensa y abierta documentación que, en cada caso, servirá para cuantos deseen indagar detalladamente sobre la historia así como la valoración artística de este hermoso y preciado monumento arquitectónico.

Creo que ha merecido la pena esta investigación, pues

duaren aurkezpenean: Herri batek, gauzen ikuspegia izateko, oraina eta iragana konda diezaioten behar du. Harriak ez baitira ez horren hotz, ez horren isil, bere zergatia eta aurretikoa ezagunak zaizkigunean".

J.S.M.

como bien decía mi amigo Javier de Aramburu (que en esta ocasión he de agradecer su amable prólogo) en la presentación a la segunda edición ampliada de la monografía Hondarribia: Notas históricas y curiosidades (1989) de F. Portu: "Un pueblo necesita, para tener perspectiva, que le cuenten su presente y su pasado. Las piedras ni son tan frías ni tan silentes cuando se sabe su por qué y su antecedente".

J. S. M.

ELIZAREN HISTORIAZ EN TORNO A SU HISTORIA

LEHENBIZIKO BERRIAK ETA IRUÑEKO APEZPIKUTEGIAN SARTZEAZ.

Aita López del Valladok herriaren izenaz egiten duen aipamenak ihes egiten dio nik gaia maila historiko-artistiko hutsen sartzeko dudak asmoari, baina hainbat zalantzaz inguratutik aipatzen duenez, egokitu zaidala uste dut gorabehera hau argitzeko lana, garai batean artikulu pare bat eskaini bainion, gazteleraz eta euskaraz, Hondarribiko Udalaren euskara batzordeak eskaturik.

Herriak, kalean, modu sinkopatuan, "Ondárbia" eta "Ondárbí" esan ohi du. "Undarribia" izena aldiz Nafarroako Antso Jakituna errege Donostiari emandako foruan, 1180an ageri zaigu. Etimologikoki, Hondarribiak "hondartzako ibia" esan nahi du, Serapio Mugikak ulertu zuen bidetik hain zuzen. Dena dela, "ibia" horren inguruan hainbat kezka sortu da, baina ez dugu urrun jo beharrik antzeko toponimoak aurkitzeko, esate baterako Behobia (Garibayk, XVI. mendean, Beoybia idazten zuen), eta Urdanibia, gaur egungo Hondarribiaren jurisdikzioaren baitan berau. Hasierako kontsonanteari dagokionean, atzera argitu beharko dugu euskararen H aspiratua, gor gisa galtzen ez delarik, F-tzat hartzen dela sarri askotan, inguruko hizkuntza erromanikoetan; edo J ahoskatza ere heltzen da, Jaizkibel lekuko, ezen testu zahar zenbaitetan Haizquibel (Haizkibel) ikusten dugu, Hondarribia beraren izenean bezalaxe¹. Geroago helduko diet arkitekturari buruzko oharrei, histori berririk garrantzitsuenak azaldu eta gero hain zuzen, Iruñeko Apezpikutegian sartu arteko epean gertatu baitziren.

Honen inguruan bildutako bibliografian, esaterako, kontu batek ematen dit atentzioa, hau da, inork ez du Baionako Apezpikuak 1059an emandako eliza sagaratzeko lehenbiziko Bulda jasotzen, ez da aipatzen ere; dokumentua Pierre-Henry de Lalanne historialariak jaso du, latinezko jatorrizkotik kopiatuta edo, eta *Fontarabie. Ses Monuments - Son Histoire* bere obraren eranskinari gehitu dio². Hasiera batean benetakoa zela sinetsi nuen, baina agiritan murgiltzen joan naizen heinean gero eta mesfidatiago ikusi dut, erabateko mesfidantzaz azkenean. Izan

1. HOLMER, Nils M.: *El idioma vasco hablado* (Donostia, 1964), 108.-130. orr. Hondarribiko aho-hizkera aztertzen du, eta interesa duenak Hondarribiko herri hizkeraren hainbat adibide aurkituko du orriotan. MICHELENA, Luis: *Sobre historia de la lengua vasca*, I. alea (Donostia, 1988), "A propios de l'accent basque" (1957 eta 1978 bitartean Bulletin de la Société de Linguistique de Paris delakoan argitaratua, 17. kapitulua, 225.-226. orr.). MÚGICA, Serapio de: *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Vol. *Guipúzcoa* (Barcelona, 1910-1916), 741.-751. orr. ALZOLA, Nikolas: *Euskaraz, Iruñen barrena* (Irun, 1994). Bere garaian jasotako ahozko kontakizunak, "El Bidasoa" haren zenbait aletan argitaratuak, eta orain liburu honetan bilduak; "Ondárbia" aldaera ahoskatzen den adibide ugari topatuko dugu bertan. ALZOLA, Nikolas: *Euskaraz, Iruñen barrena* (Irun, 1994). Narraciones orales recogidas en su día por vía oral y publicadas en varios números de El Bidasoa y ahora reunidas en este libro, donde encontraremos numerosos ejemplos de la pronunciación popular en forma de "Ondárbia". Izenpetzen duenaren artikulua Irungo Bidasoa aldizkarian argitaratu ziren lehenbiziko aldiz, 1985eko Hondarribiko jaiet buruzko ale berezian, eta 1986ko udaberrian jarraitu zuten aldizkari berean ateratzen eta, azkenik, euskaraz dagoeneko, *Hondarribia* aldizkariaren 6.-17. aleetan.

2. LALANNE, Pierre-Henry de: *Fontarabie. Ses Monuments Son Histoire* (Paris, 1896), 212. or.

PRIMERAS NOTICIAS Y SU INCORPORACIÓN AL OBISPADO DE PAMPLONA.

La alusión del R.P. López del Vallado a la denominación del municipio, naturalmente, se aparta de mi propósito de centrar el tema en lo puramente histórico-artístico, pero puesto que lo menciona con sus dudas al respecto, me corresponde aclarar este punto al que un día le dediqué un par de artículos, en castellano y en vascuence, realizados a petición de la comisión de euskara del Ayuntamiento hondarribiarra.

Popularmente, en forma sincopada, aún hoy se le denomina bajo la pronunciación de "Ondárbia" y "Ondárbí". El nombre de "Undarribia" se documenta en el fuero concedido por el rey Sancho el Sabio de Navarra a San Sebastian, en 1180. Etimológicamente, Hondarribia significa "vado del arenal", tal como interpretó Serapio de Múgica. Se han formulado algunas dudas sobre "ibia" (el vado), pero no necesitamos alejarnos para encontrar topónimos comparativos en su cercanía, como son Behobia (que Garibay escribía el siglo XVI, Beoybia) y Urdanibia, este dentro de la jurisdicción actual de Hondarribia. En cuanto a la consonante inicial, he de aclarar una vez más, que la H aspirada del euskara, cuando no se pierde como sorda, frecuentemente es interpretada como F en las lenguas románicas de su entorno; o pasa a pronunciarse J, como en el caso de Jaizkibel que en algunas escrituras antiguas se lee Haizquibel (Haizkibel), incluso en el apellido del propio Hondarribia¹.

Más adelante me ocuparé de las anotaciones arquitectónicas, una vez expuestas las noticias históricas más relevantes, que han de transcurrir hasta su traslado al obispado de Pamplona.

En la bibliografía reunida al efecto, por ejemplo, me llama la atención que ninguno alude ni recoge la primera Bula de consagración de la iglesia por el Episcopado bayonés, en 1059; documento que aporta el historiador Pierre-Henry de Lalanne, supuestamente copiado del original en latín, y que incorpora al apéndice de su obra *Fontarabie. Ses Monuments - Son Histoire*². En principio creí en su

1. HOLMER, Nils M.: *El idioma vasco hablado* (San Sebastian, 1964), 108-130. Trata del uso oral de Hondarribia, donde el interesado encontrará varios ejemplos del habla popular hondarribiarra. MICHELENA, Luis: *Sobre historia de la lengua vasca*, t. I (Donostia - San Sebastian, 1988), "A propios de l'accent basque" (trabajo publicado entre 1957 y 1978 en el Bulletin de la Société de Linguistique de Paris, cap. 17, 225-226). MUGICA, Serapio de: *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Vol. *Guipúzcoa* (Barcelona, 1910-1916), 741-751. ALZOLA, Nikolas: *Euskaraz, Iruñen barrena* (Irun, 1994). Narraciones orales recogidas en su día por vía oral y publicadas en varios números de El Bidasoa y ahora reunidas en este libro, donde encontraremos numerosos ejemplos de la pronunciación popular en forma de "Ondárbia". Los artículos del que suscribe, vieron la luz primeramente en la revista Bidasoan de Irún, en el número extraordinario de las fiestas de Hondarribia en 1985, para proseguir en la misma publicación en la primavera de 1986 y, por último, en vascuence, en la revista Hondarribia, nº 6, 17.

2. LALANNE, Pierre-Henry de: *Fontarabie. Ses Monuments - Son Histoire* (Paris, 1896), p. 212.

ere, hainbeste eta hainbeste apokrifotako beste bat ote, edo bakar-bakarrak transkripzioan emandako garai interferentzia bat ote da? Alabaina, ohar bat egin beharra dut, hots, jatorrizko eskuizkribua aurkitu beharko genuke, inon baldin bada, dukeen sinesgarritasuna aztertzeko. Oso-oso gutxi baitira garai horretako agiriak, eta izkribu-kopiatzailak zuhurtasunez hartu behar ditugu. Hala ere, Lalanneren agiriak badu alderdi harrigarri bat, eta guztia interpretazio akats bat ez ote den nago. Hondarribiko udalean Serapio Mugika artxibategizaina zelarik aipatu zuen sagarapen agiri bera dela uste dut, Udal Artxibotik eskuratua alegia (Errf.: A.M. K sekzioa, 1 zk-ko liburua, 1 zk-ko esp.); eta Mugikak berak agiriaren lehenbiziko lerroak aditzera eman zituen, "El Obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis" lanean³. Baina oraingo honetan 1549koa zen. Mugikak kontu hau argitu ez izana ere harrigarri gertatzen da, inondik ere, are gehiago Lalanneren obra zenbait aldiz aipatzen duela.

Testu bien hasieren artean ikusten diren alde txikiak, honako hauek dira:

"In Dei nomine, amen. Anno a nativitate Domini, millesimo quinquagesimo nono (1059), nono die vero prima mensis Julii, nos Johannes de Gauna miseracione divina, episcopus Bayonensis et Phirmiensis ecclesiae ad invicem auctoritate apostolica perpetui junctae consecramus ecclesiam" (Lalannere-nean).

"In Dei nomine Amen. Anno a nativitate Domini millesimo quingentesimo quadragesimo nono (1549) die vero prima mensis Julii Nos Johannes de Gauna miseracione divina Episcopus Bayonensis et Phirmensis ecclesiarum ad invicem auctoritate apostolica perpetuo unitarum consecravimus Ecclesiam" (Mugicarenean).

Nik uste, alabaina, testuaren interpretazio okerrekoak datak aldatu zituela. Idazkiak aurkezteko erabilitako formulak antzekoak izan daitezke, baina izen eta deitura berak azaltzeari kasualitate handiegi deritzot. Eta gauzak horrela, S. Mugikak eginiko transkripzioa zuzena dela uste dut.

Egia esanda, Mugikak bere lanaz lortu nahi zituen helburuak oso bestelakoak ziren, ezen batez ere elizbarrutien eta, guztien gainetik, Frantziaren eta Espainiaren artean muga aldeko parrokiez jabetzeko ematen ziren liskarrak zituen langai nagusi.

Hala eta guztiz ere, onartu behar dugu hutsuneak ere oso ugari direla, artxibo frantziarretan behar beste ikertu ez izanaren ondorioz agian. Kontuan izan behar baita lehen, iragandako denboretan, Bidasoako eskualde honek, Hondarribia zuela artzapez-barruti, Oiartzun bailararen jurisdikzioa hartzen zuela bere baitan, Erreterria, Lezo eta Pasaia San Joanez; Bidasoaren ertz osoa Baztango haranaren hasieraraino, ordea, Baionako Apezpikutegiari zegokion, Gombaudo episcopus Wasconiae apezpikuarekin 977an, are gehiago Arsieu (Arsio) delakoarekin, Benedikto VII.aren garaian, 980 inguruan, eta aldi berean Auch-eko artzapezpiku-barrutiaren mendearen bazegoen; antzina-

veracidad, pero a medida que he ido hurgando en la documentación la desconfianza me ha ido invadiendo. ¿Estaremos ante uno de tantos apócrifos o solamente ante una interferencia de época en la transcripción? He de advertir, sin embargo, que sería conveniente localizar el manuscrito original, si es que existe, para examinar su fidedignidad. Son muy raros y escasos los documentos de esa época y a los amanuenses hay que tratarlos con cautela. No obstante, hay en él algo sorprendente, que me lleva a la sospecha de un error interpretativo. Creo que se trata del mismo documento de consagración que cita Serapio de Múgica, de cuando ocupaba el cargo de archivero en el ayuntamiento de Hondarribia, procedente del Archivo Municipal (Ref.: A.M. Sección K, lib. nº 1, exp. nº 1) cuyas primeras líneas las dio a conocer en su trabajo "El Obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis"³. Pero en este caso sería del año de 1549. También es extraño que Múgica no pusiera en claro esta cuestión cuando en varias ocasiones cita la obra de Lalanne.

Las mínimas diferencias que se observan al comienzo de ambos textos son las siguientes:

"In Dei nomine, amen. Anno a nativitate Domini, millesimo quinquagesimo nono (1059), nono die vero prima mensis Julii, nos Johannes de Gauna miseracione divina, episcopus Bayonensis et Phirmiensis ecclesiae ad invicem auctoritate apostolica perpetui junctae consecramus ecclesiam" (en Lalanne).

"In Dei nomine Amen. Anno a nativitate Domini millesimo quingentesimo quadragesimo nono (1549) die vero prima mensis Julii Nos Johannes de Gauna miseracione divina Episcopus Bayonensis et Phirmensis ecclesiarum ad invicem auctoritate apostolica perpetuo unitarum consecravimus Ecclesiam" (en Múgica).


Pienso, sin embargo, en que una mala interpretación del texto alteró los años. Las formulas utilizadas en las presentaciones de los escritos fácilmente pueden ser similares, pero la coincidencia del mismo nombre y apellido es ya demasiado casual. Por cuyo motivo me inclino a la transcripción de S. de Múgica.

Lehenago adierazi dudan bidetik, eta lehenengo berrietatik oso urrun egonik ere egungo tenplua eraiki aurretikoa denez, derrigorrez aipatu beharko dut haren baitan izandako gertaera historikorik garrantzitsuena, XIV. mendean erdialdekoa, Gipuzkoa eta Ingalaterraren artean bakea eta adiskidetasuna zirelarik nagusi; izan ere bilera bat izan zen, "in ecclesia beatae Mariae Fontisreindi", horrelaxe jasotzen baitu 1353ko urriaren 29an elizan izandako bilerrari buruzko latindar testuak, Westminster-en Eduardo III.ak berretsiak, eta bertaratu zirenak, Hondarribiko ordezkariak gain, Getaria, Mutriku, Laredo, Baiona, Miarritze, Castro Urdiales eta Donostiakoak izan ziren. Testu osoak Pablo Gorosabelek bildu zituen bere *Memoria sobre las guerras y tratados de Guipúzcoa con Inglaterra en los*

para aumentar la autoridad real³⁸.

Por otra parte, debido a los diversos privilegios concedidos a la diócesis de Bayona por Gregorio arzobispo de Aux (Ausch), en 1186, casi de inmediato, Celestino III, en 1194, confirma en dichos privilegios la misma extensión de los límites territoriales que coinciden con los más arriba citados: "...el balle que se diçe Vastan, el balle que se dize Lerin, el balle que se diçe Lesac, el balle que se diçe Olearçu hasta San Sebastian". Ello constituye un testimonio concluyente, sin ningún género de duda, contra lo que hayan opinado algunos autores. Los textos se conservan en el Archivo Municipal de Hondarribia. Recientemente los ha publicado la Sociedad de Estudios Vascos - Eusko Ikaskuntza, con las transcripciones de M. Larrañaga e I. Tapia. Con anterioridad, el segundo de los documentos, texto del Papa Celestino III, lo publicó íntegramente E. Labayru en el apéndice del volumen primero de la *Historia General del Señorío de Bizcaya*³⁹.

En el supuesto de falta de veracidad de la consagración del templo hondarribiara en el siglo XI, disponemos por tanto del aludido privilegio del límite territorial en el siglo XII. Determinante para mostrarnos que la parroquia de Santa María de Hondarribia funcionaba como templo y además ejercía de arciprestazgo para la comarca. Y, consecuentemente, nos lleva a la lógica conclusión de la existencia de un primitivo templo de estilo románico.

Me apoyo, además, en una muestra arqueológica, que descubrí en los sillares de la base del muro meridional, allá donde se juntan las paredes de la base de la torre con las del templo, a menos de un metro de altura junto a la escarpa de la torre, justo donde forman diedro ambos muros. Me refiero a un fragmento de arquivolta románica con ornamentación tetrafolial, cuyas características las di a conocer en la revista *Hondarribia*⁴⁰. La única explicación lógica es que debe tratarse de una pieza de la primitiva iglesia.

Como he señalado anteriormente, existen otras noticias que nos atestiguan la existencia de la iglesia parroquial anterior a la actual en el mismo lugar, de estilo románico sin duda alguna.

Para exponer de alguna manera, aunque distante en el tiempo a las primeras noticias, pero anteriores a su vez a la construcción del actual templo, he de referirme en primer lugar a la efemérides histórica más importante que se produjo en su seno a mediados del siglo XIV, el de paz y amistad entre Gipuzkoa e Inglaterra, "in ecclesia beatae Mariae Fontisreindi", según viene a denominar el texto latino de la reunión celebrada en ella el 29 de octubre de 1353, con representantes de esta villa y Getaria, Mutriku, Laredo, Baiyona, Biarritz, Castro Urdiales y San Sebastián, confirmado por el rey Eduardo III, en Westminster. Los tex-

38. CARO BAROJA, Julio: "Los vascos y el mar", *Itxaskaria* (Bilbo, 1978), I. kap., 84-88. orr.

39. LARRAÑAGA, Miguel eta TAPIA, Izaskun: *Fuentes documentales del País Vasco* 48. Colección documental del Archivo de Hondarribia (1186-1479) I. alea (Donostia, 1993), 1-5. orr.

LABAYRU, Estanislao J. de: *Historia general del Señorío de Bizcaya*, I. alea (Bilbo, 1895), 840-842. orr.

40. SAN MARTIN, Juan: "Erromaniko aztarna Hondarribiko eliza nagusian", *Hondarribia* aldizkariaren 55. alean (1994), 38. orr.

38. CARO BAROJA, Julio: "Los vascos y el mar", *Itxaskaria* (Bilbao, 1978), cap. I, 84-88.

39. LARRAÑAGA, Miguel y TAPIA, Izaskun: *Fuentes documentales del País Vasco* -48. Colección documental del Archivo de Hondarribia.(1186-1479) Tomo I. (San Sebastian, 1993), 1-5.

LABAYRU, Estanislao J. de: *Historia general del Señorío de Bizcaya*, t. I(Bilbao, 1895), 840-842.

40. SAN MARTIN, Juan: "Erromaniko aztarna Hondarribiko eliza nagusian", en la revista *Hondarribia*, nº 55 (1994), 38.




7. Erromaniko arku zatia elizaren hegoaldeko hormaren oin partean.
7. Fragmento de arquivolta románica en la base del muro meridional de la iglesia.

siglos XIV y XV lanean⁴¹.

Baiona, XII. mendearen erdialdeaz geroztik XV. mendera arte Ingalaterrako koroaren mendean egotera igaro izanaren arrazoiak ere merezi du, nola ez bada, azalpenik. Serapio Mugicak, P. Risco-ri jarraiki, ederki gogoraziko digu adierazitako toki guztiak Baionako Apezpikute-giari atxikita zeudela. Eta halatan, aipatzen ari garen sasoi horietan, Nafarroako erregeak, Gipuzkoa ere beren erresumako zatitatz zutela, Frantziako bailara haietako jaun legitimoak ere baziren, 1086 arte hain zuzen, zeren eta urte horretan Gilermo Akitaniako Dukea jabetu baitzen lurraldeez.

Aro feudalean ari zen hau guztia gertatzen, nazioa herriaren batasuntzat hartzen duen lurralde kontzeptu hori artean ez zelarik; honen ordez jaunen, are gehiago, erregeen artean boterea menderatzeko nahi mugagabe eta zekena ematen zen. Batzuetan, errege-erregentzarak itunak egiteko beste modu bat izaten ziren, boterea sendotzeko ahalginean bermagune eta oreka hobea eskuratzearen, estatu gisa eraturiko beste botere-eremu baten aurka elkarrekin jotzeko azken batean. Gogoan izan sasoi hartan, beti ere konkista eta itunen bidez jardutearen ondorioz hain zuzen, Ehun Urteko Gerra izan zela. Oso garai desegonkorra izan zen Europaren mendebaldearentzat, eta baita Euskal Herriarentzat ere, ezin bestela izan, herri xeheak izugarri sufritu baitzuen, boteredunen interes desberdinen artean gatibu zegoen eta. Alde batetik etengabeak iziren jaunen arteko liskarrak, eta bestetik Nafarroa, Gaztela, Frantzia eta Ingalaterrako koroen interesak biltzen ziren, ohiko bizimoduaren nondik norakoa errotik aldaraziz bando-borroka nahasietan, lurraldea menderatzeko barne zein kanpo gatazka amaigabeez. Oso eragin zuzena

41. GOROSABEL, Pablo de: *Memoria sobre las guerras y tratados de Guipúzcoa con Inglaterra en los siglos XIV y XV* (Tolosa, 1865). II, kap., 30. orrian, tregoa deskribatzen ditu eta eranskinean, berriz, 83-96. orrietan, latinezko jatorrizko testuak dakartza. CONDE DE LLOBREGAT, *Fuenterrabía. Noticias históricas*. (Bigarren argitalpena, 1942). 60. or. Gaia labur aipatzen du.



8. Erromaniko arku zatiaren lauhostodun apaingarria.
8. Ornamento tetrafolial del fragmento de arquivolta románica.

tos completos vienen recogidos por Pablo de Gorosabel en su *Memoria sobre las guerras y tratados de Guipúzcoa con Inglaterra en los siglos XIV y XV*⁴¹.

La razón por la que Bayona pasó a depender a la corona de Inglaterra, desde la mitad del siglo XII hasta el XV, también merece su explicación. Serapio de Múgica, siguiendo a P. Risco, nos recordará que los lugares indicados estaban adscriptos al Obispado de Bayona. Siendo así que en los tiempos a que nos referimos, los reyes de Navarra, a cuyo reino estaba unida Gipuzkoa, eran también señores legítimos de aquellos valles de Francia, hasta 1086, en que entró en la posesión de sus estados Guillelmo, Duque de Aquitania.

Transcurría en la época feudal, cuando no existía aún ese concepto territorial de nación como unidad de un pueblo, sino el ilimitado y codicioso dominio de poder entre señores, así como entre los propios reyes. En ocasiones, las bodas reales constituían otra manera de pactar para encontrar un mejor apoyo y equilibrio en el fortalecimiento de poder para actuar conjuntamente en contra de otro dominio de poder establecido como estado. Recuérdese que en ese período, como consecuencia directa de la forma de proceder, por conquistas y pactos, se produjo la guerra de los Cien Años. Una época muy inestable para el occidente europeo y, por supuesto, para el propio País Vasco, más concretamente en sufrimiento del pueblo llano, apresado entre los intereses partidistas de los poderosos. Por una parte las constantes discordias entre señores y por otra los intereses de las coronas de Navarra, Castilla, Francia e Inglaterra, alterando el curso normal de la vida en turbulentas banderías, con permanentes conflictos internos y externos por el dominio territorial. Afectó muy directa-

41. GOROSABEL, Pablo de: *Memoria sobre las guerras y tratados de Guipúzcoa con Inglaterra en los siglos XIV y XV* (Tolosa, 1865). En el cap. II, 30, describe las treguas y en el apéndice, 83-96, aporta los textos originales en latín. CONDE DE LLOBREGAT, *Fuenterrabía. Noticias históricas*. (Segunda edición, 1942), 60. Trata brevemente sobre el tema.

izan zuen Bidasoa eskualdeko merkataritzan, Bizkaiko itsasoko kostaldeko beste portu guztietan bezalaxe. Horretatik, hain zuzen ere, bere garaian Nafarroako Antso Jakitunak Donostiari eman zion foruaren orokortzea, geroago Gaztelako Alfontso VIII.ak kostaldeko hiribilduei eman baitziren, itsas merkataritza garatzeko helburu garbiaz. Alabaina, zailtasunek ere bere horretan zirauten.

Koroa ingelesak ordurako ezarria zuen ekonomi politika bat, ezin ukatuzkoa da, eta honen bidez loraldia ezagutu zuen Baiona erdigunetzat zuen merkataritzak, Lapurdiko historiari oparotasun izugarria eskainiz gainera, hainbat arau berri ezarri baitzuen politika hark merkataritza bultzatzearen, XIII. mendearen hasieraz geroztik batez ere, Joan Lurgabea zela errege. Th. Lefebvre, *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques orientales* lanean, horixe azaltzen du, eta Manex Goihenetxek ederki dioen legez: "1215.ean, Jean-Sans-Terre Ingalaterrako erregeari esker ehun zinegotzietziki osatzen zuten herri batzarrak zuen Baionako hiriaren administratza zuzentzen, Errepublikaren erregimen baten modura. Ingleseri esker, abantaila eta irabazi anitzez baliatu ziren Baionesak"⁴².

Joan Lurgabeak merkataritzaren arloan izan zuen jokaera hau Ruanen (Normandia) eman zen lehenik, Baionan baino bizpahiru urte lehenago hain zuzen. Eta kontzesio hori, Nafarroako Antso Jakitunak Donostiako foruz 1180an emandako merkataritzarako arauen ondoriozkoa ote? Kronologi hurrenkera ikusita, baiezkoan nago.

Izan ere, Antso Jakituna izango zen, inondik ere, politikarako trebetasun aparta erakutsi zuen azken errege nafarra, bide egokirik eraman baitzituen Logroño, Gasteiz eta Donostiako foruak, emaitzak lekuko, zeren eta maila ekonomiko zein sozialean gora egin baitzuten aipatuek. Donostiako forua, bere aldetik, Nafarroako Antso Ramirezek emandako Lizarrakoaren ondorengoa zen, "Que quiere hacer una nueva Población en la Villa, que se llama Lizarra" jasota baitago. Baina, oinarrikerik oinarritzekoena, ordea, jakakoa da, Antso Ramirezek berak 1090ean emana. Antso Jakitunak erakutsitako trebetasun hau Gaztelako monarkenengan ikusiko dugu gero. Eta halatan, Alfontso VIII.ak Gipuzkoa hartu zuenean, Nafarroari lapurtu egin zion kostaldeko muga, Pasaiaetik Hondarribirainoko tartean, eta foruz baliatzen jakin zuen, berau hedatuz gainera kantabriako itsasoko kostaldeko porturik garrantzitsuenetan hiribilduak sortu ahala, Hondarribia ere prozesu horretan sartuz 1203an. Azken batean nafar erregeak, bere goitzenaren egiaztatzaile gisa, lehenik Donostiari eman zion foru bera zen, hiri honen merkataritzaren oparotasuna bermatzeko funtsezko oinarriak finkatu zituen alegia⁴³.

mente a la vida comercial de esta comarca del Bidasoa, así como al resto de los puertos de la cornisa cantábrica. De ahí la generalización del fuero que en su día Sancho el Sabio de Navarra otorgó a San Sebastian y después Alfonso VIII de Castilla hizo extensivo a las villas costeras, con la finalidad de desarrollar el comercio marítimo. Sin embargo, las dificultades proseguían.

También es cierto que, para entonces, la corona inglesa había implantado una organización de política económica con la que floreció la vida comercial centrada en Bayona, trayendo consigo una prosperidad inusitada para la historia de Labourd (Lapurdi) al introducir una serie de nuevas normativas para favorecer el comercio, sobre todo desde comienzos del siglo XIII con Juan Sin Tierra. Así señalaba Th. Lefebvre en *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques orientales*, y como muy bien apunta Manex Goihenetxe: "1215.ean, Jean-Sans-Terre Ingalaterrako erregeari esker ehun zinegotzietziki osatzen zuten herri batzarrak zuen Baionako hiriaren administratza zuzentzen, Errepublikaren erregimen baten modura. Ingleseri esker, abantaila eta irabazi anitzez baliatu ziren Baionesak"⁴².

Este proceder de Juan Sin Tierra en el ámbito comercial, se produjo primeramente en Ruán (Normandía), dos o tres años antes que en Bayona. ¿Dicha concesión, derivaría como consecuencia emanada de las normas comerciales concedidas el 1180 con el fuero de San Sebastián por Sancho El Sabio de Navarra? Deduzco afirmativo a juzgar por su orden cronológico.

Sancho el Sabio fue quizás el último rey navarro que mostró una habilidad extraordinaria para la política, al desarrollar convenientemente los fueros de Logroño, Vitoria y San Sebastián, que dieron un resultado favorable en lo social y económico. El mismo derivaba del fuero de Estella, otorgado por el rey Sancho Ramírez de Navarra, según consta: "Que quiere hacer una nueva Población en la Villa, que se llama Lizarra". Pero, a su vez, se fundamenta en el de Jaca, expedido por dicho rey en el año 1090. Esta habilidad mostrada por Sancho el Sabio les fue transmitida a los monarcas de Castilla. De modo que Alfonso VIII, al ocupar Gipuzkoa, usurpó a Navarra la frontera costera desde Pasaia a Hondarribia, supo aprovecharse de aquel fuero, para hacer extensivo conforme fue creando las villas, en los puertos más importantes de la costa cantábrica, incluido Hondarribia, en 1203. El mismo fuero que el monarca navarro, haciendo honor a su adjetivo, concedió primero a San Sebastián, estableciendo así las bases fundamentales para su prosperidad comercial⁴³.

42. LEFEBVRE, Th.: *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques orientales* (Paris, 1933), 268-278. orr. GOIHENETXE, M.: Op. aip., 13. eta 37.-42. orr.

43. MORET, Joseph de: Op. aip., II. alea, XV. liburua, IV. kap., 170.-172. orriak.

REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA: *Diccionario Geográfico-Histórico de España* (Madrid, 1802), I. Alea, 164.-165. orriak.

YANGUAS Y MIRANDA, José: *Diccionarios de los Fueros del Reino de Navarra* (Donostia, 1828), Hitzaurrea, VI.-XII.a.

ALTADILL, Julio: *Geografía General del País Vasco-Navarro, Navarra alea* (Barcelona, s/a), Bigarren alea, 522.-526. orriak.

ORELLA, José Luis: *Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII y XV* (Mundaiz, Donostia, 1987), 24.-27. orriak.

GOROSABEL, P.: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de Guipúzcoa* (Tolosa, 1862), Donostiako foruaren testua du, 707.-714. orrietan, eta baita Hondarribiako ere, 684.-686. orrietan.

42. LEFEBVRE, Th.: *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques orientales* (Paris, 1933), 268-278. GOIHENETXE, M.: Ob. cit., 13 y 37-42.

43. MORET, Joseph de: Ob. cit., Tomo II, Lib. XV, cap. IV, 170-172.

REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA: *Diccionario Geográfico-Histórico de España* (Madrid, 1802), Tomo I, 264-165.

YANGUAS Y MIRANDA, José: *Diccionarios de los Fueros del Reino de Navarra* (San Sebastian, 1828), Prólogo, VI-XII.

ALTADILL, Julio: *Geografía General del País Vasco-Navarro, Vol. Navarra* (Barcelona, s/a), Tomo segundo, 522-526.

ORELLA, José Luis: *Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII y XV* (Mundaiz, San Sebastian, 1987), 24-27.

GOROSABEL, P.: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de Guipúzcoa* (Tolosa, 1862), contiene el texto del fuero de San Sebastian, pp. 707-714, así mismo el de Fuenterrabía (Hondarribia). pp.684-686.

Baina muga inguru honetan, itsasoko irteera berreskuratzekeo Nafarroako koroaren oinordekoek eginko borroak bihozgabeak izan ziren Nafarroa eta Biarnotiko lehenbiziko setio haietan zehar, ez baitziren frantsesak izan borrokalariak, gure historialariek hori esan izan duten arren. Edonola ere, Frantzia izan zen bortuz bestaldeko Baskoniaren aliatu behinena XIII. mendetik XVI. mendean hasiera arte.

Horrelako kasuetarako, itundutako irtenbideak izaten ziren, eskuarki, emaitza onenak ematen zituztenak, eta negoziazioen bidez adosten zituzten ekonomiaren funtzionamendu egokiari lehentasuna ematen ziotelarik, politika-eskualde mailako aldean gaintetik eman ere, herrien beren bizitzarako funtsezkoak ziren erabakiak lortzearen. Eta gauzak horrela zirela, bakea eta konkordia ezinbesteko bilakatu ziren, alderdien arteko desberdintasunak handiak baziren ere. Eta funtsezko gauzetan elkar ulertzea hautatu zuten guztiak, gure Hondarribiko parrokiaren 1353an eginko tregoa itun haren bidez.

Lapurdi Ingalaterraren mendean egon zen kontuari dagokionean, arrazoiak argitu behar ditugu; Leonor, Akitaniako dukerri oinordekoa, Enrike Plantagenet Anjouko konde eta Normandiako dukearekin ezkondu zen 1153an, eta hau, amaren aldetiko oinordepenez, Ingalaterrako errege izendatu zuten 1155ean, Enrike II. izenez. Honen semea Rikardo Lehoibihotza izan zen, gurtzadetakoa alegia, eta Nafarroako printzesa batekin ezkondu zelarik Akitaniako duke bihurtu zen 1169an, Gilermo bere aurrekoak bereganatu omen zituen lurak lortuz. Hurrengo urteetan, erasoak etengabeak izan ziren, bai nafarrek bai gartzelauak eginak.

Puntu honetan aipamen berezia merezi du gure Julio Caro Baroja argiak esan zuenak, ezen haren hitzetan Aucheko artzapezpikuak, Baionako apezpikuak eta Rikardo Lehoibihotzak honako hau adostu zuten: "Ingalaterrak 1190 inguruan zuen itsas zein lurreko armamentuan oso garrantzi handia zuen Frantziako kostaldean, eta Gérant de la Barthe Aucheko artzapezpikuaren agindupean, eratu zen ontziteriak, honen kondestableetako bat Bernart Lacarre Baionako apezpikua zelarik. Eratze honen ondorioz itsas ordenantza ezin zorrotzagoak erredaktatu zituzten, eta ontziteriak bere jatorriko herrialdetik urrun jardun zuen, ez ordea beti izariz: Lisboan, Mediterraneoan, Sizilian, Txipreren konkistan. Eta hau guztia heroi kondairazko eta eleberrietako baten historian sartu zen, Rikardo Lehoibihitzarenean alegia, azkenean Palestinara heldu zelarik berau."⁴⁴

Geroago, egonkortasun nahiak bultzaturik, Urruñan harresi, lubanarro eta guztiko gartzelu bat eraikitzekeo baimena eman zion 1341ean Ingalaterrako erregek Urtubiko jaunari, mugaren kostaldeko zatia etsaien aurka babesteko. Baina honek liskarrak areagotu besterik ez zituen egin inolaz ere, Lapurdiko jaunak eta Bidasoaren ertz bietako biztanleak zirela tarteko. Gertaerak bata bestearen atzetik etorri ziren gero, trumilka, eta hamabi urte igarota aipatutako gure parrokiako tregoa itundu behar izan zituzten.

Baina zalantzarik batere sortzen ez duen kontua zera

Pero en esta zona fronteriza, las luchas para recuperar la salida marítima, por parte de los herederos de la corona de Navarra, fueron implacables durante aquellos primeros asedios desde Navarra y Bearne, y no tanto por los franceses como cuentan nuestros historiadores. En todo caso, Francia fue la principal aliada de la Vasconia de ultrapueños entre los siglos que van del XIII hasta primeros del XVI.

Para estos casos, las soluciones pactadas, por lo general, aportaban sus buenos resultados y se llevaban a cabo a través de las negociaciones cuando se daba prioridad al buen funcionamiento de la economía, por encima de las diferencias político-territoriales, para llegar a acuerdos fundamentales para la propia vida de los pueblos. Razón por la que la paz y concordia se hicieron necesarias, a pesar del distanciamiento que les separaban. En lo primordial, las partes optaron por un entendimiento con aquel pacto de treguas, en 1353, en nuestra parroquia hondarribiarra.

En cuanto a la dependencia de Lapurdi a Inglaterra, hemos de puntualizar que vino motivado porque Leonor, heredera del ducado de Aquitania, que se casó en 1153 con Enrique Plantagenet, conde de Anjou y duque de Normandía, que por herencia materna se proclamó rey de Inglaterra en 1155, coronado como Enrique II. Su hijo Ricardo Corazón de León, el de las cruzadas, casado con una princesa de Navarra, se convirtió en duque de Aquitania en 1169, alcanzando los dominios supuestamente apropiados por su antecesor Guillermo. A continuación, las incursiones fueron constantes, tanto de navarros como de castellanos.

En este punto merece una especial mención lo que vino a decir nuestro ilustre Julio Caro Baroja, respecto a las ordenanzas navales de finales del siglo XII, de cuando el arzobispo de Auch, el obispo de Bayona y Ricardo Corazón de León acordaron: "En el armamento naval y militar de Inglaterra por los años de 1190 tiene gran importancia la flota que se formó en la costa francesa bajo el mando del arzobispo de Auch, Gérant de la Barthe, de la cual uno de los condestables era el obispo de Bayona, Bernart de Lacarre. Esto da lugar a la redacción de unas ordenanzas navales severísimas y la flota actúa lejos del país de origen, no siempre con mesura: en Lisboa, en el Mediterráneo, en Sicilia, conquista Chipre. Todo esto entra en la historia de un héroe legendario y novelesco: Ricardo Corazón de León, que, al fin, llegó a Palestina"⁴⁴.

Más adelante, en su deseo de estabilidad, en 1341, el rey de Inglaterra autorizó al señor de Urtubia a construir en Urrugne (Urruña) un castillo, con muralla y foso, para proteger la parte costera de la frontera contra los ataques del enemigo. Pero parece ser que con ello agudizó aún más las discordias entre los propios señores de Labourd mas los pobladores de una y otra orilla del Bidasoa. Se precipitaron los acontecimientos y doce años más tarde hubo que pactar las aludidas treguas en nuestra parroquia.

Lo que no da lugar a dudas es la prosperidad en la política comercial generada por Inglaterra en todo Labourd (Lapurdi), como he señalado, tal como nos vienen a indi-

44. CARO BAROJA, J.: Op. aip., l. kap., 90. or.

44. CARO BAROJA, J.: Ob. cit., cap. I, 90.

da, Ingalaterrak bere merkataritza politikaz Lapurdi osoan eragindako oparotasuna, lehen adierazi dudana alegia, Th. Lefebvre eta Manex Goihenetxe aipatuek horixe erakusten baitigute. Hauek eskaintako dokumentazioak emendatze bat izan du duela gutxi, zeren eta Eugène Goyhenechek oso datu garrantzitsuak azaldu baititu *Bayonne et la région Bayonnaise du XII au XV siècle* izeneko lanean; izan ere, honetan zehatz-mehatz jasotzen du Baionan eta bere eskualdean gertatzen zen guztia. Edonola ere, kontuon ulermen irazikeo baterako, azkeneko orrietan bildutako laburpenaz edo konklusioez⁴⁵ balia daiteke irakurlea.

Gatazka eta liskar hauek guztiak azaltzen dira aipatutako egileen lanetan, baina esan beharrekoa zaio Ainhoa Arozamena Ayalak ederki asmatu zuela funtsezko alderdiak biltzen, bere "Fuenterrabia (Hondarribia)" artikulua luzean, *Diccionario Enciclopédico Vasco*-n⁴⁶.

Parrokian gorderik daude XIV. mendearen amaierako gotiko ingelesaren alabastro edo harlabanezko lau pieza, eta antzinako erretaula baten hondarrak omen, inondik ere. Beharbada, mendekotasun politikoaren ondorio baino Ingalaterrarekiko merkataritza erregular baten fruitu gehiago izango ziren. Arkeologi lekukotza bat ere badira, baina hurrengo atalean helduko diet horrelakoei.

Garai hartako politika gatazkatsua, alderdi desberdinen interesez, erlijioaren esparrura ere hedatu zen eta, gure eskualdeko artzapez-barrutiek ongi funtziona zezaten Kalisto III.ak, aitasantutzan Nikolas V.aren ondorengoak, epaia eman beharra izan zuen 1456an, Baionako apezpikuak Beltrán de Iraeta jauna Donostiako artzapez-barruti nagusitik kentzeko eta honen tokian beste bat izendatzeko erabakitako probidentzia baliogabetuz. Hona hemen gaiari buruzko testu argigarri bat, Pablo Gorosabelek bere *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* obran jasotakoa: "...Buldak honako hau ezartzen eta agintzen baitu: Iruñeko egungo Apezpikuak, eta honen ondoren direnek, bere ofizialak jar ditzatela aipatutako Donostiako hirian, Gipuzkoatik kanpokoak, eta bertakoak, egokirik baldin badago, eta benefiziadunak hango elizetakoren batean, eta ez dezatela, ez hemen ez beste inon, bere erabakimenaz kargutik ken ditzaketenak besterik jar, ezta izenda ere, eta hauen ordeaz ezaugarri edo zertzelada berdina dituztenak jartzeko moduz jokatuz inolaz ere, eta hauek ere bere audientzia edo epaitegia Donostiako hiri horretan izan beharko dute, eta Kontzejua ez du bertakoa eta bertako benefiziadunak diren bikario edo ofizialak besterik zertan onartu, eta Iruñeko egungo Apezpikuak, eta honen ondoren direnek ere, ezingo dute aipatu baldintzak betetzen ez dituztenak onartzera behartu Kontzejua, eta arau hau hautsiz gero, zeharo balio gabea izango da..."

car los citados Th. Lefebvre y Manex Goihenetxe. Documentación ampliada recientemente con importantes datos por Eugène Goyheneche, que aborda detalladamente cuanto acontecía en Bayona y su comarca, en la obra titulada *Bayonne et la région Bayonnaise du XII au XV siècle*. Para una somera comprensión, el lector puede acceder fácilmente a través de su resumen o conclusiones expuestas en las páginas finales⁴⁵.

Todos estos conflictos son expuestos por los citados autores, pero he de añadir que Ainhoa Arozamena Ayala supo recoger en forma abreviada lo fundamental en su extenso artículo "Fuenterrabia (Hondarribia)" en el *Diccionario Enciclopédico Vasco*⁴⁶.

En la parroquia se han conservado cuatro piezas de alabastro del gótico inglés de finales del siglo XIV, que deben ser restos de un antiguo retablo. Tal vez, más que por esa dependencia política correspondan a un comercio regular con Inglaterra. También constituyen un testimonio arqueológico, de los que me ocuparé en el siguiente capítulo.

La conflictividad política de la época, naturalmente, con sus intereses partidistas, se extendía asimismo al ámbito religioso y para el buen funcionamiento de los arciprestazgos de nuestra comarca, Calixto III, que sucedió en el pontificado a Nicolás V, se vio obligado a dictar sentencia en junio de 1456, revocando la providencia acordada por el obispo de Bayona de separar a D. Beltrán de Iraeta, del arciprestazgo mayor de San Sebastian, nombrando a otro en su lugar. Sirvanos al efecto el texto de Pablo de Gorosabel en la obra *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*: "Establecemos y ordenamos, dice la bula, que el Obispo actual de Pamplona, y los que existan después en su tiempo, pongan oficiales suyos foráneos de la dicha provincia de Guipúzcoa en la expresada villa de San Sebastian y oriundos de la misma, si hubiere idóneos para ello, y beneficiados en alguna de las iglesias de ella, y no instituyan, ni deuten a ningún otro, ni en otro lugar, a quienes puedan remover a su arbitrio, y poner otros de iguales circunstancias, los cuales tengan su audiencia o tribunal en dicha villa, y el Concejo de ella no esté obligado a recibir otros vicarios u oficiales sino a los que fuesen oriundos y beneficiados de la misma, ni el Obispo actual de Pamplona, ni los sucesores en su tiempo, puedan compeler a admitir a los que carezcan de estas circunstancias, y si lo atentaren, sea nulo, de ningún valor ni fuerza etc.".


En el mismo capítulo proseguirá refiriéndose al de Hondarribia, precisándonos al respecto: "Así como en el Arciprestazgo mayor, también en el menor se conoció en lo antiguo un oficial foráneo, o sea, Juez eclesiástico dependiente del Obispado de Bayona, puesto y removido

45. GOYHENETCHE, Eugène: *Bayonne et la région Bayonnaise du XII au XV siècle* (Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990), 429-440. orr.

46. Beste batzuen artean, dagoeneko aipatu ditugun obretan informazio zabalago jakoko dugu: MÚGICA, S. de: Op. cit., 200-229. orr. GOYHENETXE, E.: *Historia de Iparralde* (Donostia, 1985), 32-33. orr. URANZU, Luis de: Op. cit., 133-134. orr. AROZAMENA AYALA, Ainhoa: "Fuenterrabia (Hondarribia)", *Diccionario Enciclopédico Vasco*-ren XIV. alea (Añamendi arg., Donostia, 1982), 287-293. orr. KINDER, H. eta HILGEMANN, W.: *Atlas histórico mundial - I*. De los orígenes a la Revolución Francesa (Madrid, 1970), 197-199. orr.

45. GOYHENETCHE, Eugène: *Bayonne et la région Bayonnaise du XII au XV siècle* (Universidad del País Vasco, 1990), 429-440.

46. Entre otras, hallaremos amplia información en las ya mencionadas obras: MUGICA, S. de: Ob. cit., 200-229. GOYHENETXE, E.: *Historia de Iparralde* (San Sebastian, 1985), 32-33. URANZU, Luis de: Ob. cit., 133-134. AROZAMENA AYALA, Ainhoa: "Fuenterrabia (Hondarribia)", en el *Diccionario Enciclopédico Vasco*, t. XIV (Ed. Añamendi. San Sebastian, 1982), 287-293. KINDER, H. y HILGEMANN, W.: *Atlas histórico mundial - I*. De los orígenes a la Revolución Francesa (Madrid, 1970), 197-199.



Carte du Diocèse de Bayonne jusqu'en 1566.

9. Baionako Apezpikutegiaren mapa 1566. urtekoa, Bidasoa eskualdea Iruñaren menpera pasa zen urte berekoa.
9. Mapa de la Diócesis de Bayona en 1566, año en que la comarca del Bidasoa pasó a la dependencia de Pamplona.

Kapitulu berean jarraituko du Hondarribikoari buruz, eta honela diosku, hain zuzen: "Artzapez-barruti nagusian bezala, txikian ere ezagutu zuten antzina ofizial kanpotar bat, hau da, Baionako Apezpikutegiaren mendeko elizaren epaile bat, hark jarria eta hark kargutik kendua libreki. Alabaina, ez da funtzionari honen antzinako sorrerari buruzko berririk, ezta eginkizun zein eliz eskumen horretan aritutako pertsonen izen eta zertzeladei buruzkorik ere. Oso ohitura arrunta eta entzuna da Hondarribian bertako Artzapezak audientzia eta epaiak harlanduzko besaulki batean jarririk ematen zituela, parroki elizaren aldamean kokaturik berau, hegoaldera begira. Eta jasota dagoen bezala, 1511ko urtarrilaren 10ean Errege Katolikoak Baionako Apezpikuari zedula bat igorri zion, probintziak hala eskaturik, eta honetan, probintziako bertako apaizak nolako delitu eta gehiegikeriatan aritzen ziren azaldu eta gero, eliz epaile bat jartzeko eskatu zion, beraren Apezpikutegiaren mendean zegoen Gipuzkoako zatirak; izan ere, ordurarte inolako zigorrik gabe geratzen ziren delituok. Eta prelatuak mandatu hau bete ez zuelarik, itxura, probintziak berak atzera erregututa beste errege zedula bat igorri zioten

libremente por éste. No hay, sin embargo, noticias de la primitiva creación de este funcionario, ni de los nombres y circunstancias de las personas que hubiesen ejercido semejante empleo y jurisdicción eclesiástica. Es tradición vulgar muy recibida en Hondarribia que su Arcipreste daba audiencia y pronunciaba las sentencias en un sillón de piedra labrada establecido junto a la iglesia parroquial por la parte del mediodía. Lo que sí consta es que en 10 de Enero de 1511 el Rey Católico dirigió al Obispo de Bayona, a solicitud de la provincia, una cédula por la cual, después de expresar cómo los clérigos de ella cometían diferentes delitos y excesos, que quedaban impunes, le encargó pusiese para su castigo en el territorio de su Obispado comprendido en Gipuzkoa el correspondiente juez eclesiástico. Véase también que por no haber aquel prelado cumplido con este encargo, a súplicas de la misma provincia se le dirigió otra Real cédula en 21 de Febrero de 1512 volviéndole a pedir el cumplimiento de la anterior. No aparece el resultado que hubiese producido esta segunda amonestación, aunque es probable que se hubiese accedido a los deseos de Su Majestad y de la provincia.

1512ko otsailaren 21ean, aurretik bidalitakoan eskatzen ziotena bete zezala galdatuz edo. Ez zaigu ageriko bigarren oharatarazpen honek izandako emaitza, baina baliteke Erregeren eta probintziaren nahiak bete izana. Gertatua gertatu zelarik, kontua zera da, Aita Santuak 1524an artzapez-barruti hau *vere nullius* jo zuela, eta ondorioz abade edo bikario nagusi bat izendatu zutela inguruon izpirituz-gobernarako. Kargu berri honi pontifize-ahalmenak erabiltzeko aukera eman zioten, eta apezpiku-eskumen maila ia-ia, eta baita ordena txikiak ematekoa ere, maila sagaratuak izan ezik. Jasotakoaren ildotik jarraiki, espainiar erregeren proposamenaz Aita Santuak Joan izeneko bat, senidea zuen Apezpiku algarensea bera, izendatu zuen abatetxe honetan jarduteko, eta aipatu artzapez-barrutian Baionako eliz erretegi zegozkion fruitu eta ordainsari guztiak jarri zituen haren horniduratzat. Abatetxe hau 1526an kendu zuten, aipatu prelatua hil zelarik hain zuzen, aurreko atalean adierazi dugun bezalaxe. Eta halatan, orduaz geroztik artzapez-barruti honetan bikario nagusirik, kanpoko ofizialik edo beste inolako epaile eliz eskumendunik izan den berririk batere ez dago, Baionako Apezpikuek izan baitzuten, zeharo eta erabat, lurralde honen gaineko eskumena, bere elizbarrutiaren mendea egon zen bitartean. Iruñekoek ere beste hainbeste egin zuten, 1566an bere elizbarrutian sarturik geratu zenez geroztik, eta lehenago adierazi dugun bideetik hain justu.⁴⁷

Karlos V.ak erregutuz, Leon X.aren garaian abatetxe mitradun bat eratu zen, ez soilik Hondarribiko artzapez-barrutian, baizik eta baita Gipuzkoakoan ere. Eta halatan Gipuzkoako herriek, Iruñeko eta Baionako apezpikuen mendea zeudela elizaren kontuetan, abade bat izan zuten gainean aurrerantzean eta honek, bere aldetik, Erromako Pontifizea zuen nagusi zuzen; erroketea, bonetea eta apaiz kapelua, eta mitra eta artzain-makila erabil zitzaizkeen, meza nagusian eta bezperetan bedeinkapen publikoa eman zezakeen, ordena txikiak ospatu eta dimisoriak eman handietarako, apezpiku legez absolbatu, herriarrik bisitatu, onurak ukatzeko eta eteteko eskumenaz, eta Gaztela eta Leongo erresumetan apezpikuek, bakoitzak bere elizbarrutian, zertzen zituzten eginkizun guztiak burutu, abatetxearen patronatu eskubidea Karlos I.ari (Karlos V.a Alemaniakoa eta I. Espainiakoa) eta honen ondorengoei gordez.⁴⁸

Beste une historiko bat izan zen Irungo parrokiaren sorrera, ordura arte Hondarribiari lotuta baitzegoen, honen artzapez-barrutiaren pean. Baina lehenago ere Irunen bazegoen, bai horixe, elizarik; esate baterako, hantxe gordetzen da probintziako ama birjinaren irudirik zaharrena, Juncalگو Ama Birjina alegia, estilo erromanikokoa, XII. mendekoa baita. Pio XII.a Aita Santua izan zen Hondarribiko parrokiaren mendea zegoen Irungo landa-eliza bereizteko grazia eman ziona, 1462an, Baionako Apezpikutegiari. Eta Hondarribikoaz ari dela, testuak honela dio: "parochialis ecclesiae beatae Mariae Castri de Fonterandi"⁴⁹. Berritri ere gure arretari deigarri gertatzen

Como quiera que sea de esto, es lo cierto que, a consecuencia de haberse declarado por Su Santidad en 1524 este arciprestazgo como territorio *vere nullius*, se creó para su gobierno espiritual un abad o vicario general. Concediósele el uso de pontificales, la jurisdicción cuasi episcopal, así que para conferir las órdenes menores, a excepción de las sagradas. Se hallaba también que, a propuesta del monarca español, el Papa nombró para el ejercicio de esta abadía a un tal Juan, Obispo algarense y familiar de Su Santidad, señalándole para su dotación todos los frutos y emolumentos que en el expresado Arciprestazgo correspondían a la mesa episcopal de Bayona. Esta abadía quedó suprimida el año de 1526 por muerte de dicho prelado, según se manifestó en la sección anterior. Así es que no se encuentra noticia de que haya existido desde entonces en este Arciprestazgo vicario general, oficial foráneo, ni otro Juez alguno con jurisdicción eclesiástica, que la ejercieron en toda su plenitud los Obispos de Bayona mientras aquel territorio dependió de su Diócesis. Otro tanto hicieron los de Pamplona desde que en 1566 quedó incorporado a la suya, según también se expresó antes⁴⁷.

A ruegos de don Carlos V, se erigió en tiempo de León X una abadía mitrada, no sólo en el arciprestazgo de Hondarribia, sino también en el de Gipuzkoa. De esta suerte los pueblos guipuzcoanos, que estaban eclesiásticamente sujetos al obispo de Pamplona y al de Bayona, quedaron bajo la obediencia de un abad, que dependía inmediatamente del Romano Pontífice, pudiendo usar roquete, bonete y sombrero episcopal, mitra y báculo pastoral, dar pública bendición solemne en misa mayor y vísperas, celebrar órdenes menores y otorgar dimisorias para las mayores, absolver como obispo, visitar a los naturales, pudiendo privarles de los beneficios y suspenderlos, y ejercer todas aquellas funciones que practicaban en sus diócesis los obispos de los reinos de Castilla y León, reservando el derecho de patronato de la abadía a Carlos I (Carlos V de Alemania y I de España) y a sus sucesores⁴⁸.

Otro momento histórico constituyó la creación de la parroquia de Irún, hasta entonces unida a Hondarribia, manteniéndola bajo su arciprestazgo. Esto no quiere decir que en Irún no hubiera ninguna iglesia, pues curiosamente allí se conserva la imagen mariana más antigua de la provincia, la Virgen del Juncal de estilo románico, del siglo XII. Fue el Papa Pío II quien concedió al Obispado de Bayona, el año de 1462, el indulto de desmembrar la iglesia rural de Irún que dependía de la parroquia de Hondarribia. Denominada por cierto, "parochialis ecclesiae beatae Mariae Castri de Fonterandi"⁴⁹. De nuevo nos llaman la atención esas curiosas y tan singulares denominaciones, "Fontisreindi", "Fonterandi", etc. Pero este documento en concreto nos interesa por el hecho transcendental que supuso para ambas ciudades, más por la propia data, justo nueve años antes de comenzar las obras para erigir el actual templo de estilo gótico de Hondarribia.

47. GOROSABEL, Pablo de: *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, IV. alea (Tolosa, 1900), VII. lib., I. kap., II. sekzioa, 151.-154. orr.

48. GOÑI GAZTAMBIDE, J.: *Op. cit.*, III. alea, 104.-106. orr.

49. RUIZ DE LOIZAGA, Saturnino: "Documentación referente al País Vasco y Rioja (siglos XIV-XV)", *Scriptorium Victoriense*, 33 (1986), 180.-182. orr.

47. GOROSABEL, Pablo de: *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* t. IV (Tolosa, 1900), lib. VII, cap. I, sección II, 151-154.

48. GOÑI GAZTAMBIDE, J.: *Op. cit.*, t. III, 104-106.

49. RUIZ DE LOIZAGA, Saturnino: "Documentación referente al País Vasco y Rioja (siglos XIV-XV)", *Scriptorium Victoriense*, 33 (1986), 180-182.

zaizkio "Fontisreindi", "Fonterandi" eta antzeko izen bitxi eta berezi horiek. Baina orain aipatzen ari garen agiriak beste interes arlo bat ere badu guretzat zeren eta, datagatik beragatik baino gehiago, hiri bientzat oso gertakizun garrantzitsua izan zen, Hondarribiko egungo eliza gotikoa eraikitzeko lanak abiatzeko bederatzirte besterik ez zirelarik falta.

Eta XVIII. mendearen hasiera aldeko elizaren patronatuaz, ikus dezagun zer dioskun P. Gorosabelek bere *Diccionario Histórico de Guipúzcoa* lanean: "Oso tenplu gaitua da, handientsua, arkitektura onekoa eta taxuera sendokoa. Bere patronatua hiriari berari dagokio, udala duela ordezkari; bikario batek, bertako apaiza eta kaperau nagusia baita, eta lau benefiziadunek zerbitzatzen dute. Pieza hauen aurkezpena, zotz eginda izendaturiko sei zinegotziren artetik modu berean hautatutako hiru zinegotzik egin behar dute, halaxe agintzen baitu hiriak egin eta 1700eko abuztuaren 26an errege kontseiluak berretsitako ordenantza batek. Gainera, hautapen hau pertsona duin eta egokien artean egingo da, hiriko bertako semeen artetik inolaz ere"⁵⁰.


Sobre el patronato de la iglesia al comienzo del siglo XVIII, veamos lo que viene a decirnos P. Gorosabel en su *Diccionario Histórico de Guipúzcoa*: "Es templo muy capaz, majestuoso, de buena arquitectura y sólida construcción. Su patronato corresponde a la misma ciudad, representada por su ayuntamiento; se halla servida por un vicario, que es cura propio y capellán mayor, y cuatro beneficiados. La presentación de estas piezas, con arreglo a una ordenanza hecha por la ciudad y confirmada por el consejo real en 26 de agosto de 1700, debe hacerse por tres vecinos concejantes sacados en suerte de entre otros seis designados en igual forma. Además la elección debe recaer en sujetos dignos y suficientes, hijos patrimoniales de la misma ciudad"⁵⁰.

50. GOROSABEL, Pablo de: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa* (Tolosa, 1862), 169. or.

50. GOROSABEL, Pablo de: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa* (Tolosa, 1862), 169.

2

**ARKITEKTURA ETA ARTEAZ
EN TORNO A SU ARQUITECTURA Y ARTE**



10. Hondarribiko Andra Maria Jasokundekoaren oin-marrazkia.

10. Plano de Santa María de la Asunción de Hondarribia.

Aurreko kapituluan azaldutako histori eta arkeologi erreferentzien arabera, estilo erromaniko tenplu zaharrago bat bazela esan dezakegu, inolaz ere.

Ondorengo lerrootan egungo tenplua, gotiko berantiar estilokoa, azaltzera mugatuko naiz. Eta lantegi honetan jatorri desberdineko iturriak erabiliko ditudan arren, funtsean Aita Félix López del Valladoren deskripzio baliapen jakintsua izan dut gidari, zeren eta berak eman baizituen, egin zuen bisitaren ondoren, arkitekturari buruzko iritzi teknikorik jantzienak. Nonahi eta tokiz-toki datu osagarri batzuk emango ditut, hainbat dokumentu erreferentziaz

Las referencias históricas y arqueológicas expuestas en el capítulo anterior, constituyen prueba evidente de la existencia de un templo primitivo de estilo románico.

A continuación me limitaré a reseñar el templo actual de estilo gótico tardío. Y aunque para ello utilice fuentes de diversa procedencia, básicamente me guiaré de la sabia descripción valorativa del R. P. Félix López del Vallado, S.J., que con su visita emitió los mejores juicios técnicos sobre la arquitectura. De manera puntual añadiré algunos datos complementarios, con referencia documental y otras aclaraciones, hechas en base a la inspec-

eta beste zenbait argibidez, tokian bertan egin dudak ikuskapenean oinarrituz eginak baitira eta, egokitzen denean, interpretazio hobe eta osoagoaren lagungarria izango direlako. Baina azalpen honetan, arkitekturaren egiturari eta denboran zehar izan dituen aldaketei buruzko deskripzioaz gain, bakar-bakarrik oinarritzko ideien osaketarantz joko dut, Joanes de Iriarteren erretaula errenazentistaz emanez akabera lanari. Eta ez dut nire gogotik aldenduko dorreak jasandako bilakaera, erdi aroko oinarritik hemezortzigarreneko kanpandorreraino helduz.

Hau guztia esan ondoren, dorrearen oinarritik hasiko naiz, Nafarroako Antso Azkarrak eginiko gotorlekuen aztarnatza baitut.

López del Vallado, oso zuhur jokatzuz, aztertze lanean murgil gaitetzen gonbidatzen gaitu, eta ikerkuntza eta hausnarketarako arrasto bat zabalik lagatzen digu, honako esaldi hau oparitzen digunean: "Guretzat enigma handia da elizaren HM-ko (Hego-Mendebaleko) angeluari atxikitako harlanduzko murru lodien oinplano errektangeluarra..." , dorrearen oinarriari buruz ari delarik, inolaz ere. Eta ikerkuntzarako hainbat aukera iradokiko digu, zeren eta berak dioenez "...kontu honek argibideren bat behar baitu".

Alabaina, gotorlekuen eraikuntzari buruz, beti legez oso bide zuzenetik jotzen duela, hara zer aipatzen digun: "Antso Azkarrak, bere erresumaren babesean aritzen zelarik, oso gogoan zituen bere herrialdearen erlijio interesak, eta Biasteri eta Hondarribia harresiz itxi zituen". Uste edo iritzi bat baino gehiago, historiari duen ezagueran oinarritutako baieztapen bat da. Eta nire aldetik, beraien jakinduriaren berri denok dugun beste kronikari batzuek idatzirik utzi zigutena egiaztatzea besterik ez da izanen ahalegina. Karlos Bianako Printzeak, esate baterako, *Crónica de los Reyes de Navarra* izeneko bere lanean, Antso Azkarrak eraikitako gotorleku desberdinen zerrenda egin zuelarik honako hau azaldu zigun: "...fizo los castillos de Fuente Rabia e Sant Sebastian". Garibayk berak ere, *Compendio Historialean*, defentsarako arrazoia adierazten du: "Contra el Ducado de Guayna, que en esta sazón era de Ingleses, tratan, que fortaleció en las marinas de Cantabria, en la Provincia de Guipúzcoa, las villas de San Sebastian, y Fuenterravia, y lo mesmo hizo en otras partes"⁵¹.

Fantasiako kondairei balioa aitortzeko joera duten historialariak askoz urrunago heldu dira, eta hauxe izan ohi da, hain zuzen ere, historia kontuetan oso seriotasun gutxi erakusten dutenei gehien gustatzen zaiena; eta hauen arduragabeziak kalte handia egiten dio garaian garaiko gizartearen portaerari. Kontu honen inguruan Gabriel de Henaok oharpen bat egiten digu, arrazoï bidez zeharo, bere *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria* lanaren 47. kapituluari, historia arloan ikusten dituen gehiegikeriak direla eta, eta Fr. Juan de Pineda, Beuter, Saavedra eta gure Garibay bera ere egurra jasotzen dutenen artean daude, Hondarribiko gotorlekuari buruz egin zituzten obretan isuritakoen eraginez. Eta bakar-bakarrik Arnaud d'Oihenarti eskaintzen dio goraiamen bat, datu subjektiboen ordean objektiboak erabili ohi zituelako

ción personal realizada *in situ* y que servirán, en cada caso, para una mejor y más completa interpretación. Eso sí, en esta exposición, aparte de la descripción de su estructura arquitectónica y las modificaciones a través del tiempo, únicamente avanzará hacia la culminación de la idea fundamental hasta completar con el retablo renacentista de Joanes de Iriarte. Sin olvidar, por supuesto, la evolución sufrida por la torre desde su base medieval hasta el campanario dieciochesco.

tzituzten beren produktuak. Euskal kostaldean ere bada Ingalaterrarekiko merkataritzaz eskuratutako beste aleren bat ere. Baina Hondarribikoak dira, eta ez besterik, Victoria and Albert Museoko *English Medieval Alabasters* katalogoan aipatzen dituztenak⁷².

Alabastro edo harlabanezko pieza hauetako hiru, bi zeharo hondatuta daudela, berdinak dira neurriz eta estilo ezaugarriez, eta Alexandriako Santa Katalinaren martirioaren historia errepresentatzen dute. Laugarren piezak, berriz, handiagoa eta beste esku batek egina izaki, Kristoren piztuera errepresentatzen du.

cretamente son las únicas mencionadas en el catálogo *English Medieval Alabasters* del Museo Victoria and Albert⁷².

Tres de estas piezas de alabastro, dos de ellas muy deterioradas, son similares en medidas y en sus características de estilo, representan la historia del martirio de Santa Catalina de Alejandría. La cuarta pieza, de mayor dimensión y de diferente mano, representa la Resurrección de Cristo.

Xavier de Cardaillac mencionó tres de estas piezas de alabastro, como dato singular, precisando época y atribu-

72. CHEETMAN, Francis: *English Medieval Alabasters with a catalogue of the collection in the Victoria and Albert Museum* (Oxford, 1984). Katalogoarekin batera europar kontinenteko mapa bat dago, Ingalaterran eginiko piezak zein tokitan dauden adieraziz bertan, eta hauen artean Hondarribia ageri da.

72. CHEETMAN, Francis: *English Medieval Alabasters with a catalogue of the collection in the Victoria and Albert Museum* (Oxford, 1984). El catálogo es acompañado de un mapa del continente europeo indicando poblaciones donde se hallan piezas procedentes de Inglaterra, entre las mismas figura Fuenterrabía.



37. *Ecce Homo*, J. Iriarteren lana tabernakulurako.

37. *Ecce Homo*, obra de J. de Iriarte para el tabernáculo.

Xavier de Cardaillac-ek harlabanezko pieza hauetakoa hiru aipatu zituen, datu bitxi gisa, garaia zehaztuz eta erre-
taula zaharren batekoak zirela esanez, bere *Promenades artistiques*. *Fontarabie* lanean⁷³, baina ez zuen jatorririk aipatu. López del Valladok, bere aldetik, ez zuen oso okereko bidetik jo erre-
taula gotiko zaharreko zatiak ziren iritzia azaltzean, XVI. mendeko beste errenazentista batez, zurezkoa berau, ordezkatu baitzuten hura.

Elizako portada nagusia 1566 eta 1567 bitartean zaharberritu zuten. Eta ukitu berpizkunde erakoa eman zioten. Fatxada honetako murruek alboetan dituzten altxadurak direla eta, garai horretan edo oso hurbilekoan estalkiaren erabateko batzea izan zen ustea dugu, zeren eta altxadura horiek albo-nabeei egokitzen baitzaizkie.

Aurrez aurre begiratzen diogula erdi-puntuko ate bat ikusiko dugu. Honen baoaren erdibitzaile gisa, mainel bat, bi hutsune errektangeluar osatuz. Tinpanoan, frontoi bat, eta honen erdian tenpluaren titularraren irudi ongi zizelkatu bat, Jasokundearen dogma sartu eta ondorengo garaikoa hain zuzen.

Hona hemen M. A. Arrazolak ate honi buruz ematen digun deskripzioa: Ate honek ordezkatu zuen fatxadako erdigune zaharra. Eta badugu eraikuntzari buruzko berririk ere: izan ere, 1566ko maiatzaren 29an elizako maiordo-

yéndoles su pertenencia a algún retablo antiguo, en *Promenades artistiques*. *Fontarabie*⁷³, pero sin indicar procedencia. Por su parte, López del Vallado, no iba desviado al opinar que son restos del primitivo retablo gótico que fue sustituido por otro renacentista en madera, del siglo XVI.


La portada principal de la iglesia se reformó entre 1566-1567. Dándosela un carácter de estilo renacentista. A juzgar por los levantes laterales de los muros de dicha fachada, que justamente corresponde a las naves laterales, nos hace sospechar que durante ese período o muy próximo a él debió producirse la unión total de la cubierta.

Viendo de frente nos encontraremos con una puerta de medio punto. Su vano aparece dividido por un mainel, en dos huecos rectangulares. En el tímpano, un frontón cuyo centro ocupa una imagen bien esculpida de la titular del templo, que corresponde a la época posterior a la intrusión del dogma de la Asunción.


He aquí como nos viene a describirnos M. A. Arrázola: Esta puerta vino a sustituir al primitivo centro de fachada. Tenemos noticias referentes a su construcción: El 29 de mayo de 1566 se dirigieron al regimiento los mayordomos de la iglesia, y "dixeron que ellos habían tratado entre sí de hacer la portada de la iglesia y que si hera la voluntad del

73. CARDAILLAC, Xavier de: *Promenades artistiques*. Fontarabie (Bordele, 1896), 221. or.

73. CARDAILLAC, Xavier de: *Promenades artistiques*. Fontarabie (Bordeaux, 1896), 221.



38. Sabai gotikoak eliz-gurtzan.
38. Las naves góticas en el crucero.



39. Elizburuaren erdiko sabaia.

39. Bóveda del ábside central.

moak erregidoreengana joan ziren, eta "dixeron que ellos habían tratado entre sí de hacer la portada de la iglesia y que si hera voluntad del regimiento lo harían. Platicado largo sobre ello, en Regimiento, proveyeron que la dicha portada se haga de los dineros pertenecientes a la dicha iglesia, y el maestre que en ello entendiese, las trazas que diere sea por orden del regimiento y que los dichos mayordomos tengan cargo de que se haga la dicha obra, conforme a dichas trazas y poder e facultad que para ello tienen y siendo necesario le otorgan de nuevo y les encargaron que de las ermitas de Nuestra Señora de Guadalupe y de Nuestra Señora de Gracia colmen lo que estuviere cogido en los cepos de ellas e de las otras ermitas".


Hurrengo urteko azarorako portada amaituta zegoen, eta udalean honela erabaki zuten: "que estando acabada la obra de la portada de la iglesia se haya de examinar la dicha obra, para que un maestro cantero y otro que nombre el mismo maestro de la obra reconozcan y den su fallo sobre su buena ejecución".

Ateak antzina apaindurako arku handi bat zuen erdiko

regimiento lo harían. Platicado largo sobre ello, en Regimiento, proveyeron que la dicha portada se haga de los dineros pertenecientes a la dicha iglesia, y el maestre que en ello entendiese, las trazas que diere sea por orden del regimiento y que los dichos mayordomos tengan cargo de que se haga la dicha obra, conforme a dichas trazas y poder e facultad que para ello tienen y siendo necesario le otorgan de nuevo y les encargaron que de las ermitas de Nuestra Señora de Guadalupe y de Nuestra Señora de Gracia colmen lo que estuviere cogido en los cepos de ellas e de las otras ermitas".

Para noviembre del año siguiente estaba terminada la portada y se acuerda en ayuntamiento "que estando acabada la obra de la portada de la iglesia se haya de examinar la dicha obra, para que un maestro cantero y otro que nombre el mismo maestro de la obra reconozcan y den su fallo sobre su buena ejecución".

La puerta tenía antiguamente entre los contrafuertes de la nave central un gran arco decorativo, saliente y flanqueado por agujas góticas; sus arranques se ven todavía a



40. Hegoaldeko hormaren erremateko balaustreak.

40. Balaustrada de remate de la pared Sur.

nabeko zutoitarte ostikoei dagokien artean, irtena eta orratz gotikoak zituela alboetan; hauen abiaguneak ikusten dira, oraindik ere, egungo atearen alde banatan; arkuaren dobelak murraren arrasean moztuta daude, eta goreneko puntuaz hormapikoaren oinarriaraino heltzen zen arku, honetan amaitzen delarik fatxada gaur egun, ertz sinplez eta hostotzarik gabe eraturako hiru dorretxo edo pinakuluz.

Atari irtenak, bi ostikoren artean dagoela, tenpluko sarrera adierazten digu; atariak berak atearen altuera du, eta kanoi-ganga batez estalita dago, harrizko kasetoidura duela apaingarri. Oinarritzat dituen alboko bi hormataletan listelak ikusten dira, baina ez dakigu obra berriko apaingarriak edo atari zaharreko hondarrak ote diren. Ateangoetan zutabeak ditugu, oso kapitelen pobreak dituztela erremate. Euskarri faltsuak dituen kanpo arkibolta batek osatzen du ate honen apaindura, kapitelen parean hain zuzen⁷⁴.

74. ARRAZOLA, M. A.: Op. aip., I. alea (Arquitectura), 43-44. orr. (Bigarren arg., I. alea, 84. or.).

un lado y otro de la puerta actual; con su apuntamiento llegaba ese arco, cuyas dovelas aparecen cortadas al ras del muro, hasta la base del piñón, en que hoy termina la fachada, coronada con tres torrecillas o pináculos listados de simples aviotas y sin fronda.

El pórtico saliente, entre dos contrafuertes, da acceso al templo; tiene el pórtico la altura de la puerta y está cubierto con bóveda de cañón, decorado con un artesonado de piedra. En los dos lienzos laterales en los que se apoya se ven filetes, que no sabemos si son elementos decorativos de la nueva obra o restos del antiguo pórtico. En las jambas hay columnas terminadas en muy pobres capiteles. Una archivolta exterior sobre falsos apoyos a la altura de los capiteles, completa el ornato de esta puerta⁷⁴.

Respecto al retablo renacentista nos añade que parte de los paneles de sus cuerpos se conservan en la sacristía. Se

74. ARRAZOLA, M. A.: Ob. cit. tomo I (Arquitectura), 43-44. (Segunda ed., I, 84).

Erretaula errenazentistari buruz darraiel, erretaula-ataletako panel zati batzuk sakristian gordeta daudela dio. Joanes de Iriarte eskultoreak egin zuen erretaula nagusiari buruz ari zen. Izan ere, egiaz gertatutakotzat jotzen da har-laban edo alabastrozko erretaula gotikoa XVI. mendearen amaiera aldean ordezkatu zutela, oso hondatuta zegoelako eta herritarrek erretaularekin oso konforme ere ez zeudelako, txikiagia baitzen nonbait⁷⁵.

Ordezkatze hau zela eta, Donostian bizi zen Joanes de Iriarte altsasuarra kontratatu zuten; Ambrosio de Bengoechearekin jarduna zen hau, San Bizenteren parrokiako erretaula nagusia egiten, 1583 eta 1586 bitartean; eskultore biak Joan Antxietaren eskola erromanistaren jarraitzaileak ziren.

Bengoechea eta Iriarteren Antxietaren eskolarekiko lotura, zuzeneko dizipuluak baitziren, J. Camón Aznar-en *El escultor Juan de Anchieta* laneko hitzaurrean laburtu nuen⁷⁶. Iriartek eskultore gisa zuen trebetasuna nabarmen erakutsi zuen San Bizenten. Ezin bestela izan, zeren eta bestela ez baitzuen Antxietaren dizipulurik onena zen A. de Bengoecheak lankidetzat onartuko, eta esaten ari gare-naren isladarik distiratsuenak Hondarribian gordetzen diren panelak dira. Hauei buruzko ikerkuntza lanik zorrotz eta mamitsuena María Asunción Arrazolari zor diogu, *El Renacimiento en Guipúzcoa* lanean eskaini baitzigon⁷⁷.

M. A. Arrazolak azaltzen duenez, Hondarribiko erretaula nagusia egin zuena Joanes de Iriarte izan zela konturatu zen lehena Paul Lafond izan zen, bere *"Sculpteurs basques en Espagne"*, honela esan zuelarik zalantzarako batere zirikurik lagatzeke: "En 1590, Juan de Iriarte, né dans le Guipuzcoa, remplace dans l'église de Fontarrabie un vieux retable par un nouveau; en 1593, Martin de Ostiza, né lui aussi dans le Guipuzcoa y est constamment occupé; Esteban de Ostiza, probablement son fils, achève le grand retable de Fontarrabie entrepris par Juan de Iriarte"⁷⁸.

Joanes de Iriartek hiri honetan lan egin zuen 1590etik 1595ean hil zen arte. Haren anaia Lopek jarraitu zuen hasitako lana, Martin eta Esteban de Ostiza aita-seme mihiztatzaileren laguntzaz, eta Jeronimo de Larreak, Joanesen laguna eta Antxieta azpeitiarraren eskolari atxikia bera ere, eskaini zion elkarlanaz. Lopek egin zituen irudi aske handiak, apostoluak, Ama Birjina biak eta San Juan eta Maria Kalbariorako, Miserikordia eta Justizia errepresentatzen duten beste biez gain. Obra hauek Antonio Oleaga pintoreak erreztatu eta estofatu zituen lehenik, 1598an, eta Nikolas Brehevillek geroago.

Antxieta, Migel Anjelek blaituriko estiloaz, Trentoko

refería a los restos del retablo mayor, obra del escultor Joanes de Iriarte. De hecho, se da como válida la sustitución del retablo gótico en alabastro a finales del siglo XVI, por encontrarse muy deteriorado y ruinoso y por no estar muy conformes los vecinos con el retablo, por considerarlo muy pequeño⁷⁵.

Ello motivó que se le contratara a Juanes de Iriarte, natural de Alsasua y residente en San Sebastian, donde colaboró con Ambrosio de Bengoechea en la ejecución del retablo mayor de la parroquia de San Vicente, entre los años de 1583 y 1586; ambos escultores seguidores de la escuela romanista de Juan de Anchieta.

La vinculación de Bengoechea e Iriarte a la escuela de Anchieta, como discípulos directos, la resumí en el prólogo a la obra *El escultor Juan de Anchieta* de J. Camón Aznar⁷⁶. Iriarte, en San Vicente dio buena muestra de su destreza de escultor. No pudo ser de otro modo al aceptarle su colaboración el discípulo más aventajado de Anchieta, como lo era A. de Bengoechea, y los paneles que se conservan en Hondarribia son el testimonio más elocuente. Debemos su principal estudio a María Asunción Arrázola en *El Renacimiento en Guipúzcoa*⁷⁷.

El primero en identificar a Joanes de Iriarte como autor del retablo mayor de Hondarribia, tal como informa M. A. Arrázola, fue Paul Lafond en su trabajo *"Sculpteurs basques en Espagne"*, donde sin objeción a la duda vino a decir: "En 1590, Juan de Iriarte, né dans le Guipuzcoa, remplace dans l'église de Fontarrabie un vieux retable par un nouveau; en 1593, Martin de Ostiza, né lui aussi dans le Guipuzcoa y est constamment occupé; Esteban de Ostiza, probablement son fils, achève le grand retable de Fontarrabie entrepris par Juan de Iriarte."⁷⁸.

Joanes de Iriarte trabajó en esta ciudad desde 1590 hasta su fallecimiento en 1595. Prosiguió la obra su hermano Lope, con la ayuda de los ensambladores Martín y Esteban de Ostiza, padre e hijo, y la colaboración de Jerónimo de Larrea, amigo personal de Joanes e igualmente adscrito a la escuela del azpeitano Anchieta. El se ocupó en la realización de las grandes imágenes exentas, los apóstoles, las dos Vírgenes y San Juan y María para el Calvario, además de otras dos que representan la Misericordia y la Justicia. Obras que fueron doradas y estofadas en 1598 por el pintor Antonio de Oleaga primero y seguido más tarde por Nicolás de Breheville.

Anchieta, con su estilo miguelangelés aplicó a la iconografía los conceptos vertidos desde la contrarreforma Trentina, para establecer sus cánones plásticos. Adelan-

75. PORTU, F.: Op. aip., 312. or. (Bigarren arg., 556. or.).

76. SAN MARTIN, Juan: José CAMON AZNAR-en *El escultor Juan de Anchieta* obraren bigarren argitalpenari hitzaurrea (Donostia, 1990), 13. eta 15. orriak.

77. ARRAZOLA, M.A.: Op. aip., I. alea (Arquitectura), 41.-47. orr.; II. alea (Eskultura, pintura eta arte txikiak), 411.-423. orr.; III. alea (Ilustrazioak), 158.-162. orr. (Bigarren argitalpena, Donostia, 1988, II. alea, 262.-270. orr.). Lehen argitalpeneko II. alearen eranskinean, J. de Iriarteren testamentua jasotzen du 785.-792. orrietan, Gipuzkoako Agiritegi Orokorreko Korregidore Fondotik eskuratuta (Bigarren argitalpenean, 481.-484. orr.).

78. LAFOND, Paul: "Sculpteurs basques en Espagne", *RIEV*, IV (1910), 363. or.

75. PORTU, F.: Ob. cit., 312 (Segunda ed., 556).

76. SAN MARTIN, Juan: "Prólogo" a la segunda edición de la obra *El escultor Juan de Anchieta*, de José CAMON AZNAR (San Sebastian, 1990), 13 y 15.

77. ARRAZOLA, M. A.: Ob. cit., tomo I (Arquitectura), 41-47; tomo II (Eskultura, pintura y artes menores), 411-423; tomo III (Ilustraciones), 158-162. (Segunda edición, San Sebastian, 1988, t. II, 262-270). En el apéndice al tomo II de la primera edición, procedente del Archivo General de Guipúzcoa, Fondo de Corregimiento, aporta el testamento de J. de Iriarte en las páginas 785-792. (En su segunda edición págs. 481-484).

78. LAFOND, Paul: "Sculpteurs basques en Espagne", *RIEV*, IV (1910), 363.



41. Ifarraldeko erremate flamigeroak. Detallea.

41. Remate flamígero de la pared Norte. Detalle.

kontrarreformatik isuritako kontzeptuak aplikatu zizkion ikonografiari, bere kanon plastikoak finkatzeko. Eta, bitxikeria gisa, Rojas y Sandoval apezpiku iruindarraren Sinodo Konstituzioei aurreratu zitzairen, honek honela esan baitzuen: "sacris imaginibus, estanyos y mandamos S.S.A. que en ninguna yglesia desde nuestro Obispado: aunque sea exempta, ni en otro lugar pio, o religioso, pinten ni pueden pintar imágenes, ni historias, sin que primero se haga relación a Nos, o a nuestro Vicario general, para que veamos, y examinemos, y proveamos como conviene que se haga la pintura de las tales imágenes, o historias: y si hallaren, que están indecentemente pintadas, las hagan borrar, para que se pongan en cada lugar otras, que les convenga a la reverencia, y culto de ellas". Eta honetatik ondorioztatzen denez, gure eskultorea aitzindaria izan zen kontrarreformaren kontzeptuak isladatzeko onean, aipatu proklama argitaratu baino hiru urte lehenago hil baitzen, bere obretako gehienak eta, zalantzarik gabe, bikainenak Iruñeko Apezpikutegiaren mendeko elizetan utziz. Azpeitiarraren mezua baitzen, Iñazio Loiolakoa bere herrikidea baino gazteagoa izanagatik ere, honek sortu eta Kontrarreformaren alde jo zuen lagundikoen garaikidea genuen eta eskultorea. Honela baztertu zituzten orduarte erretaulagileen ikonografian apaingarri argigarritzat erabili zituzten Itun Zaharreko motibo paganoak eta bibliako pasarteak.

Eta maisuak zabalduetako arrastoari jarraitu zitzaion Iriarte, batere alboratzeke, eta Antxietaren inspirazioa begibistakoa da haren lanetan. Izan ere Iriarteren eskulturen bolumenak geometrikoki antolatuta daude, irudien sosegua nabarmena da, eta grabitatearen indarra adierazten duten tolesak erakusten dituzte kapek, azpeitiar maisu handiak aurrez jorratzen hasitako bidetik hain justu. Honen epitafioan, bestenaz ere, honela idatzi zuten: "Hemen datza Antxieta, bere obrak ez goraiatpeaz gain beste inorenik mesprezatu ez zuena"

Hondarribiko erretaula hondatuaren multzoak, parrokiako sakristian gorderik diren zatien argitan bederen, Jesusen bizitzaren historia deskribatzailea erakusten zuen, Ikustalditik Nekaldirainoko tartea hartuz. Pieza bikainak dira, eta ondoen gorde direnen artean Ikustaldia, Aurkezpena edota Mariaren Koroatzea aipa ditzakegu, baina guztien gainetik, Ecce Homo, lan aparta egin baitzuten pieza honetan; hala ere, duen neurri txikia dela eta

tándose, curiosamente, a las Constituciones Sinodales del obispo pamplonés Rojas y Sandoval, quien invocó: "sacris imaginibus, estanyos y mandamos S.S.A. que en ninguna yglesia desde nuestro Obispado: aunque sea exempta, ni en otro lugar pio, o religioso, pinten ni pueden pintar imágenes, ni historias, sin que primero se haga relación a Nos, o a nuestro Vicario general, para que veamos, y examinemos, y proveamos como conviene que se haga la pintura de las tales imágenes, o historias: y si hallaren, que están indecentemente pintadas, las hagan borrar, para que se pongan en cada lugar otras, que les convenga a la reverencia, y culto de ellas". He de ahí de donde se deduce que nuestro escultor fue un precursor en plasmar conceptos de la contrarreforma, que falleció tres años antes de la publicación de dicha proclama, dejando tras de sí la mayor y más preciada de su obra en iglesias pertenecientes al obispado de Pamplona. Era el mensaje del azpeitiano, más joven que su paisano Iñigo de Loyola pero contemporáneo a los de la compañía que él fundó y que apoyaron la Contrarreforma. De ese modo se desterraron los motivos paganos y pasajes bíblicos del Antiguo Testamento que hasta entonces servían de ornato ilustrativo en la iconografía de los retablistas.

En este proceder, Iriarte fue fiel a su maestro, la inspiración anchietana es tangible en la obra de Iriarte. Los volúmenes de sus esculturas en ordenamiento geométrico, la serenidad de sus figuras con las capas con plegamientos en gravedad, etc. concuerdan con las del gran maestro azpeitiano del que se hizo constar en su epitafio: "Aquí yace Anchieta, que sus obras no alabó ni las de otros despreció".

El conjunto del malogrado retablo de Hondarribia, a juzgar por las partes que se conservan en la sacristía de la parroquia, contenía una historia descriptiva de la vida de Jesús, abarcando el ciclo que va desde la Visitación hasta la Pasión. Son piezas notables, de entre las que se conservan en mejor estado, habría que destacar la Visitación, la Presentación, la Coronación de María Santísima, pero sobre todo el Ecce Homo por su extraordinaria elaboración, que por su reducido tamaño debió pertenecer al tabernáculo y actualmente como escultura exenta se expone en la sacristía sobre un capitel romano de mármol que se trajo el pasado siglo desde Tierra Santa. Por otro lado, muy deterioradas, cuando no fragmentadas, se encuentran

tabernakulukoa izango zen inolaz ere, eta gaur egun sakristian ikus dezakegu, eskultura aske gisa, joan zen mendean Lur Sainduetatik ekarritako marmol edo hartzurizko kapitel erromar baten gainean. Hauez aparte, Afaria, lkusketa, Baratzekoa, Jesus epaileen aurrean, Zigorkatzea, Gurutze Bidea, Gurutziltzaketa eta Hobiratze Saindua ikus ditzakegu, besteak beste, baina zeharo hondatuta, erabat puskatuta ez daudenean.

Joanes Iriarteren erretaulak hainbat kalte jasan zituen sute batean, 1680an. Geratutako zatirik gehienak sakristian gordeta daude, egoera alde nabarmenez; izan ere, zaharberriuriko panel batzuk lehenbizikoaren ordez jarritako erretaula neoklasikoan erabili zituzten, baina gehienak xilofagoen bazka eta hezetasunaren bilduleku izan dira. Elizako ezkerreko albo-zutaneen tarteko murrain Iriartek egin diren Kristo gurutziltzatuaren zati bikain bat ikus daiteke. Landare-motiboz apaindatuko fustea duten bi zutaberen artean kokatuta dago, gainalde estu bat duela buru, eta erretaula hondatuaren atikoko Kalbariotik ekarria da. Begiratzen dioten bakoitzean, fededunei konpon dezatela eskatzen dielakoan nago.

Hendaiaiko San Bizenteren parrokiara 1919 inguruan eramán zituzten hondarretako batzuk, hainbat akatsez zaharberriuriko zituztelarik, alboko bi erretaula egiteko erabili zituzten, eta hauetan ere Joanes Iriarteren lana ikus dezakegu, zeren eta alboko bi hauen argazki-erreproduzioak Abbé M. Michelena *Hendaye, son histoire* monografian ageri baitira, eta erretaula nagusi hark nolako itxura zuen irudikatzen laguntzen digute. Jeronimo Larrea eskulturararen bat ere eramán zuten. Baina zoritxarrez, Hondarribiko panelek Hendaia eramandakoen bide berbera ez dutela igaro esan dezakegu, ez behintzat eraberritze eta kontserbazioari dagokionean, erabat bazterrean lagata baitaude, modu penagarrian egon ere⁷⁹.

Arkitektura gotikoaz eta erretaula errenazentistaz, azkeneko hau gorde balute, tenplua mailarik gorenean egongo zatekeen artearen arloari dagokionean. Eta neurtu ezindako galeratzat har dezakegu obraren osotasun aparteko hori mantendu ez izana.

Irakurleak eskura du tenpluaren berreraikitze historikoren hurbilketa bat, altzari-educiaz hain zuzen, eta ederrren zegoen garaia helduz gainera, Udalak 1598an elizara eginiko bisitari buruzko deskripzio testuaren bidez, Florentino Portuk, ezin bide zuzenagotik, erreproduzitu baitzuen lehen aipaturiko monografian argitaratzeko⁸⁰. Sagarapenaren oso hurbilekoa izaki, 1549an egin baitzuten hura, oso agiri interesgarria da, garai hartan elizaren edukari buruz eginiko inbentariarik fidelena eta zehatzena baita, zoritxarrez arte-balioetan zeharo zentratuak ez dagoen arren.

Altzari-artearen deskripzio iraizeko batera mugatu naiz, Joanes Iriartek eginiko erretaula nagusira heldu arte, baina ez naiz geratuko beste aipamentxo bat egiteke, ez horixe,

la Cena, el Lavatorio, en el Huerto, Jesús ante los tribunales, la Flagelación, el Camino de la Cruz, la Crucifixión, el Santo Entierro, etc.

El retablo de Joanes de Iriarte fue parcialmente destruido en un incendio, en el año de 1680. La mayor parte de sus restos se guardan en la sacristía con desigual suerte, unos pocos paneles restaurados para ser aprovechados en el retablo neoclásico que le sustituyó pero la mayoría pasto de los xilófagos y el deterioro por las humedades. En el muro de la nave lateral izquierda de la iglesia se puede contemplar la magnífica muestra del Cristo crucificado, cuya autoría es atribuible a Iriarte, enmarcado entre dos columnas de fuste decorado con motivos vegetales bajo un estrecho dintel, procedente del Calvario que formaba el ático del malogrado retablo. ¿No estará perdiendo su restauración a cada mirada de los fieles ?

Parte de los restos llevados a la parroquia San Vicente de Hendaya, hacia 1919, restaurados con cierta imperfección, sirvieron para confeccionar dos colaterales, donde se puede apreciar la obra de Joanes de Iriarte. Sus reproducciones fotografiadas figuran en la monografía *Hendaye, son histoire* de Abbé M. Michelena, que nos ayudan a imaginar el aspecto de lo que pudo ser aquel retablo mayor. También se llevaron alguna escultura de Jerónimo de Larrea. Puede decirse que desgraciadamente no han corrido la misma suerte, en restauración y conservación, los paneles de Hondarribia, a juzgar por el deplorable abandono en que se encuentran⁷⁹.

La arquitectura gótica con el retablo renacentista, de haberse conservado éste, el templo hubiera mantenido el nivel más alto de su trayectoria en lo artístico. Verdaderamente ha sido una lástima que no se haya conservado esa culminación ideal.

El lector puede acceder a una aproximación a la reconstrucción histórica del templo con su contenido mobiliario, precisamente en el momento de su mayor esplendor, a través de un texto descriptivo de la visita efectuada por el Ayuntamiento a la iglesia en 1598, y Florentino Portu tuvo la buena idea de reproducir para publicar en la citada monografía⁸⁰. Como fecha muy próxima a la consagración, en 1549, constituye un interesante documento que ofrece el inventario más fiel de la época respecto al contenido, aunque desafortunadamente no esté centrado en sus valores estrictamente artísticos.

En el arte mobiliario me he limitado a una somera descripción hasta llegar al malogrado retablo mayor, obra de Joanes de Iriarte, pero no me resisto en hacer un inciso para señalar que los magníficos retablos colaterales de la advocación de San Pedro, lado del Evangelio (actualmente del Sagrado Corazón) y de la Santísima Trinidad, lado de la Epístola (actualmente de Ntra. Sra. del Rosario), aún siendo de comienzos del barroco, para indicar que sus imágenes guardan el corte inconfundible del estilo roma-

79. ROUSSEAU, Monique y Francis: *10 itinéraires en Pays Basque* (Paris, argitalpen urterik gabe, 70eko hamarraldiaren amaiera aldean). 203. orr. MICHELENA, Abbé M.: *Hendaye, son histoire* (Hendaia, 1987), 225.-226. orr.

80. PORTU, F.: Op. cit., 333.-343. orr. (Bigarren argit., 589.-603. orr.). Elizari buruz orokorrean, ikus lan bereko 311.-349. orriak. (Bigarren argit., 555.-612. orr.).

79. ROUSSEAU, Monique y Francis: *10 itinéraires en Pays Basque* (Paris, sin año de edición, a finales de la década del 70). 203.

MICHELENA, Abbé M.: *Hendaye, son histoire* (Hendaya, 1987), 225-226. orr. PORTU, F.: Ob. cit., 333-343. (Segunda ed., 589-603). Sobre la iglesia parroquial en general, véase en la misma obra, pp. 311-349. (Segunda ed., 555-612).



42. Ifarraldeko erremate flamigeroak. Ikuspegi orokorra.

42. Remate flamigero de la pared Norte. Vista general.

ze San Pedroren adokazioko albo-erretaula bikainak, Ebangelioren aldekoak (gaur egun Jesusen Bihotzarena) eta Trinitate Sainduarenak, Epistolaren albokoak (gaur egun Errosarioko Andre Mariarena), barrokoaren hasierakoak diren arren, estilo erromanistaren eite garbia mantentzen dute inolaz ere, Antxietaren eskolaren ezaugarriak nabarmen erakutsiz, azpeitiarraren eragina baitan baitaramate jarrerren soseguan, bolumenen tratamenduan eta jantzien tolesetan.

Jakinekkoa da mende honen hasieran, 1910 eta 1914 artean hain zuzen, eliza hau zaharberritu egin zutela José Ángel Fernández de Casadevante arkitekturen zuzendaritzapean, honek bere eraberritze lan horien berri eman baitzuen *Euskalerraren alde* aldizkarian argitaratutako memoria batean⁸¹. Baina ikus dezagun Jose Ormazabalek bere oharretan osterantzean dioguna: "José Ángel F. de Casadevante arkitektoa, zaharberritzeko lanak zuzendu zituelarik 1914an amaitu zituzten arte, gauza asko oso ondo egin zuten, baina organoaren korua kenduaraziz akats handia egin zuela deritzot".

Lehenago adierazi dudan bezala, ni neu ere iritzi berekoa naiz, hala fabrikaren beraren zatia zelako nola berez eta besterik gabe zuten arte balioagatik: kolomarteko arku

nista, visiblemente de las características de la escuela anchietana, como permanencia de su gran influencia tanto en sus serenos poses como en el tratamiento de los volúmenes y los pliegues de las vestimentas.

Sabido es que a comienzos del presente siglo, entre 1910 y 1914, la iglesia fue restaurada bajo la dirección del arquitecto José Ángel Fernández de Casadevante, quien dio cuenta de sus trabajos de restauración en una memoria publicada en la revista *Euskalerraren alde*⁸¹. Pero veamos lo que nos dice don José Ormazabal en sus anotaciones: "El arquitecto Dn. José Ángel F. de Casadevante, que dirigió los trabajos de restauración, terminados en el año 1914, tuvo, sin duda, muchos aciertos, pero estimo que en este punto cometió un error lamentable al hacer desaparecer el coro del órgano".

Como ya he señalado más arriba, comparto esa opinión, tanto por constituir parte del cuerpo de fábrica como por su valor artístico: se trataba de un arco intercolumnio rebajado de tipo carpanel con un festón decorado al estilo isabelino de finales del siglo XV por uno de los lados. Aún quedan sus huellas en los arranques, y su belleza motivó la sensibilidad de un artista para realizar un grabado, precisamente de ese ángulo entre el coro y la caja del órgano.

81. FERNÁNDEZ DE CASADEVANTE, J.A.: "Obras de Restauración de la iglesia parroquial de Fuenterrabía", *Euskalerraren alde*, IV.a (1914), 568.-578. orr.

81. FERNANDEZ DE CASADEVANTE, J.A.: "Obras de Restauración de la iglesia parroquial de Fuenterrabía", *Euskalerraren alde*, IV (1914), 568-578.

beheratua zen, karpanela, estilo isabeldarrean apainduriko XV. mendearen amaierako oxkar bat zuena aldeetako batean. Abiaguneetan aztarnaren bat edo beste bada oraindik ere, eta haren edertasunak gogoia pizturik artista batek grabatu bat egin zuen, koruaren eta organoaren kaxaren arteko angelu horixe jasoz, hain zuzen. Eta ulertezina zait zerk bultzatu zuen arkitektoa arku kentzera.

Antzina elizaren barnealdeko murrak estaltzen zituen kare eta igeltsua kentzeko erabakia, lehen-lehenik Juan Jose Garay abadeak hartuko zuen, 1882an, alboko ezkerreko zutoitarte estaltzen zuen kare-geruza kendu zuelarik. Eta seguruenik Auspicio Otaegik lantegi horretan jarraitzeko asmoa izango zuen, baina obraren neurriaz eta egin ahal izateko kostuaz konturatuko zen nonbait, eta proiektuaren jarraipena egiteko batzorde bat eratu zuten, Otaegi jauna bera zelarik buru⁸².

Eta dorreari dagokionera itzuliz, hiriko armarría dagoen inguruaz Jose Ormazabalek honakoa argitzen digu bere oharretan: "Egungo dorrearen egilea Francisco de Ibero Odriozola arkitekto azpeitiar ospetsua da, bere zuzendari-tzapean egin zituzten eta lanak 1762an".

Eta lehen esan dudanaren ildoari segituz, gaur egun eskura dugu Ibero arkitektoek eginiko lanei buruzko azterlan bat, M. I. Astiazarainek eginia, eta bertan zehetasun handiz bilduta daude Hondarribiko dorre barrokoa eraikitzeko Francisco de Ibero burutu zituen lan guztiak. Pedro Arretxe errementari donostiarra 1766an egin zuen burdinezko gurutzeaz errematatuta dago, dorrearen linternaren gainean jartzeko egin zuten eta⁸³.

Kanpandorrean kanpain finko bat dago oraindik, gabia eta guzti, brontze galdatuz eginia bera XVI. mendean.

Nire aldetik beste aipamen bat egingo dut; izan ere, elizaren lehen unetik bertatik eta fatxada nagusiari aurrez aurre begiratzen diogula eskuinera, atearen eta dorrearen artean, itxitako leihate bat dago, Kale Nagusitik fatxadako harlanduak arretaz aztertuz gero antzemateko moduan. Dobelak moztuta ditu, aparejuari egokitzearen itxura zertzeko. Tenpluaren barnealdetik errazago ikusten da, txarabeldua eta erdi-puntuko arku bat duela erremate, kanoi-zulo luzeska baten gisa, zeren eta, zalanza izpirik bat ere gabe, atearen babeserako erabiliko zuten. Erdiko absidean zabalduak hiru leihoen ezaugarri berberak ditu, hauek ere errondako karrejuaren azpian daudela babes eginkizun bera izango baitzuten.

Ondorengo orrietan, Jose Ormazabal jaunak eskuratu zidan López del Valladoren testuaren transkripzioa dator. Dagoeneko komentatuta dago neurri batean, baina orain jarraipen osoa egingo diogu, ahal dudan mailan osatuko dudalarik egokitzen denean ohar argigarriak eginez. Izan ere, arkitektura azterlan honen oinarri funtsezko eta ezin baliotsuagoa izan da.

82. PORTU, F.: Op. aip., 319. or. (Bigarren argit., 566. or.).

83. ASTIAZARAIN, María Isabel: Op. aip., 258.-266. orr.

No acabo de comprender qué le pudo inducir a su innecesaria eliminación.

La decisión de suprimir la cal y el yeso que antaño cubría los muros interiores de la iglesia, en su inicio debió partir por iniciativa del párroco don Juan José Garay, en 1882, al deshacer la capa de cal que cubría las nave lateral izquierda. Seguramente hubiera proseguido su sucesor don Auspicio Otaegui, pero se dio cuenta de la magnitud de la obra y su costo para llevar a la práctica. Con ese fin se formó una junta presidida por el propio señor Otaegui para el seguimiento del proyecto⁸².

Volviendo a lo que respecta a la torre, por lo menos desde donde ubica el escudo de la ciudad, don José Ormazabal precisa en sus anotaciones: "El autor de la torre actual es el insigne arquitecto don Francisco de Ibero y Odriozola, natural de Azpeitia, bajo cuya dirección se ejecutaron los trabajos en el año 1762".

Como ya he citado, actualmente contamos con el estudio de las obras realizadas por los arquitectos Ibero, debido a M. I. Astiazarain, donde trata detalladamente las obras llevadas a cabo por Francisco de Ibero, para la construcción de la torre barroca de Hondarribia. Concluida con la cruz que el herrero donostiarra Pedro de Arreche realizó, en 1766, para colocar sobre la linterna de la torre⁸³.

En el campanario de la torre se conserva una campana fija de martinete, de bronce fundido, perteneciente al siglo XVI.

Por mi parte anotaré la existencia, como parte integrante desde los orígenes, por el lado derecho según se mire de frente la fachada principal, entre la puerta y la torre, de un ventanal tapiado o cegado que se puede observar si se presta atención en los sillares de la fachada desde la calle Mayor. Tiene las dovelas mutiladas al objeto de ajustar al aparejo para el cierre. Es más visible desde el interior del templo, abocinada y rematada en arco de medio punto, como una tronera de forma alargada que, sin ningún género de duda, tenía la finalidad de defensa de la puerta. Viene a ser de las mismas características de las tres ventanas abiertas en el ábside central, que discurren justo por debajo del paso de ronda y tendrían la misma misión de defensa.

A continuación paso a reproducir la transcripción del texto de López del Vallado, que me facilitó D. José Ormazabal. Parte del mismo ha sido ya comentado y ahora me resta el seguimiento íntegro procurando complementar, en la medida de lo posible, con notas puntuales aclaratorias en torno a su inestimable descripción que ha servido como base del presente estudio arquitectónico.

82. PORTU, F.: Ob. cit., 319. (Segunda ed., 566).

83. ASTIAZARAIN, María Isabel: Ob. cit., 258-266.

3

**AITA FELIX LÓPEZ DEL VALLADOREN
TESTU ARGITARAGABEA
TEXTO INEDITO DEL R. P.
FELIX LOPEZ DEL VALLADO, S.J.**

Ondarribia deitzen diote bertakoek hiri honi, eta Undarribia irakur daiteke agiri batzuetan, baina inork ez du ulertzen nola lehenbiziko silaben ordeiz Fuente hitza sartu den, hortatik, orain denok ezagutzen dugun Fuenterrabia izena sortu zela.

Eta ez pentsa izena berria denik, ez horixe, ezen Alfonsu VIII.ak fundaziorako emandako hiri-gutunean halaxe ageri da dagoeneko, 1203an.

Zenbaitek are atzerago jotzen du denboran, eta gotorlekuko bastioietako bati ematen zaion Wamba izena bisigodoen errege harekin lotu nahi duenik ere bada, baina ez dugu datu hori egiaztatzeko inolako lekukotzarik. Edonola ere, biztanleak haran eta muinoetan sakabanaturik bizi zirelarik edo hiria eratu zutelarik, beharbada lehen unetik bertatik gotorleku gisa gainera, bertako jendeak bazituen tenpluak eta baselizak, apalak zein handiosak, Jainkoari otoitz egiteko.

Antso Azkarrak, bere erresumaren babesean murgildu baitzen, interes erlijiosoei ere ez zien muzin egiten, eta Biasteri eta Hondarribia harresiz itxi zituen. Eta pentsatzekoa da Biasterin Santa Maria eta San Joanen elizak fundatu zituen bezala, Hondarribian ere antzeko beste elizaren bat edo batzuk fundatuko zituela, baina ez dakigu horrelakorik egin zuen, eta eginik ere, batere arrastorik ez zaigu iritsi: eta garai horren aurretik zeudekeen eraikuntzen hondarrik ere ez⁸⁴.

Beharbada gaur egun Andre Maria Jasokundeakoaren elizak hartzen duen tokian egongo ziren lehen, horren hiri jainkotiar eta heroikoan falta somatzen dugun eraikuntza horiek. Eta heroiko esatean ondo ari gara, zeren eta 1638an Condéren agindupeko gudaroste frantsesei aurre egin zieten Hondarribiko defendatzaileen adorea aipatzen badugu, are mirespen eta hunkidura handiagoa eragingo baitigu ikusteak gizon haiek nola biltzen ziren Ama Birjinaren aldrearen aurrean, etsaiari aurre egiteko babesa eskatuz eta aberriaren alde bizitza emango zutela zin eginez. Eta halaxe izan zen, gehienek odola isuri baitzen. Eta jainkozaletasun horren islada dira, oraindik ere, atzerriko inbasoreen aurrean lortutako garaipena irailaren 8an ospatzen duten erlijio jaia.

* * *

84. Kontu honi dagokionean argitu beharrekoa da badirela Antso Azkarraren gotorlekuaren aztarnak, liburu honen bigarren kapituluan, arkitekturari eta arteari buruzkoan alegia, deskribatzen dudana dorrearen oinarrian. Agiri-iturriei dagokienez hainbat ohar kontsultatu behar da, honako hauek hain zuzen:

PRINCIPE DE VIANA, op. aip., 121. or.
GARIBAY, E. de: Op. aip., III. alea, XXIII. lib., XV. kapit., 164. or.
ALTADILL, J.: Op. aip., II. alea, 78. or.
AROCENA, Ig.: Op. aip., 117. or.
MURUGARREN, L.: Op. aip., 322. or.

Ondarribia llaman a esta ciudad los naturales del país y Urdanibia se lee en algún documento sin que nadie pueda explicarse la sustitución de las primeras sílabas por la palabra Fuente, dando lugar al renombre de Fuenterrabia, con que ahora se le conoce.

Y no se crea que el nombre es nuevo, pues con él se le designa en la carta-puebla otorgada para su fundación, en 1203, por el Rey D. Alfonso VIII.

Hay quien atribuye a tiempos más remotos y, aun por el nombre de Wamba con que se designa uno de los bastiones de su fortificación, quieren atribuirselo a aquel rey bisigodo, pero carecemos de testimonio que confirme tal noticia.

De todos modos, lo mismo cuando la población vivía dispersa en aquellos valles y colinas que cuando fue villa, y acaso desde entonces plaza fuerte, sus moradores, gente cristiana, tendrían templos o ermitas, humildes o suntuosas, en que adorar a Dios.

Sancho el Fuerte, que si atendía a la defensa de su reino, no cuidaba menos de los intereses religiosos de su país, amuralló a Laguardia y Fuenterrabía.

De suponer es que como en Laguardia fundó las iglesias reales de Santa María y San Juan, fundaría también en Fuenterrabía otra u otras iglesias parecidas, pero si lo hizo, no queda de ello rastro alguno: como no quedan tampoco restos de otras edificaciones que pudiera haber habido antes de esa fecha⁸⁴.

Quizá en donde se asienta la actual iglesia de Santa María de la Asunción y del Manzano, se levantarán antes de esas edificaciones que echamos de menos, en tan piadosa y heroica ciudad. La apellidamos de ese modo, porque, si se nombra el heroísmo de los defensores de Fuenterrabía, en 1638, contra los ejércitos franceses al mando de Condé – admira y conmueve más aun la serena grandeza con que, en frente del enemigo, se reunía aquel puñado de hombres ante los altares de la Virgen, pidiéndola protección y jurando ante Ella dar la vida, como dieron la mayor parte de ellos en defensa de la patria.

Reflejo de esa piedad son las fiestas religiosas con las que conmemoran aún, el 8 de septiembre, su triunfo sobre los invasores enemigos.

* * *

84. A este respecto debo reiterar que si quedan huellas de la fortificación de Sancho el Fuerte en la base de la torre de cuya descripción y noticias históricas me ocupo en los comienzos del capítulo segundo, En torno a su arquitectura y arte. Sobre las fuentes documentales se deberán consultar las notas de llamada, 33 y 36 que corresponden a: PRINCIPE DE VIANA, Ob. cit., 121.
GARIBAY, E. de: Ob. cit., t. III, lib. XXIII, cap. XV, 164.
ALTADILL, J.: Ob. cit., t. II, 78.
AROCENA, Ig.: Ob. cit., 117.

Hondarribiko hiri noble, leial eta betiko loriatsua bisitatzen duzuenen⁸⁵, sar zaitezte Santa Mariaren parrokian, Gipuzkoa osoan diren monumentuetan interesgarrienetako baita.

Ez bilatu harresietatik kanpo, itsasotik hurbil, egungo eraikuntzek hartzen duten inguruan. Sar zaitezte barruti harresituan, eliza ere bertan baita, eta barrutia handia ez denez, apenas urrats batzuk eginik ate zaharrak igarota, edota lurrera eroritako murru handien hondar izugarrien artetik bestela, Espainiako gehienak bezala Jainkoaren Amari sagararata dagoen eliza handiosa aurkituko duzue.

Eta lehen-lehenik, Kale Nagusitik gora joaten asmatzen baduzue, fatxada ikusiko duzue, eta beharbada halako desilusio bat sortuko dizue.

Izan ere murru handi bat da, karratua ia, eta ez du inolako baorik fatxada osoan; bakar-bakarrik eskuinean, erlaitzetik hurbil ikusten den armari itzel batek hausten du monotonía; eta erlaitzak, angelu hartan, balaustrada bat du errematerako, eta honen atzean, barrura sartu samaturik, dorrearen kapitelak gora jotzen du, barrokoa izan arren lerdin eta dotore⁸⁶.

Fatxada honek, antzina, apaindurako arku handi bat zuen erdiko zutoitarteko ostikoen artean, irtena eta orratz gotikoak zituela alboetan; hauen abiaguneak ikusten dira, oraindik ere, egungo atearen alde banatan; fatxadaren eskoramendua arkuraino heltzen zen, eta honen dibelak murruren arrasean moztuta ageri dira, eta goreneko puntuaz hormapikoaren oinarriaino heltzen zen arku, honetan amaitzen baita fatxada gaur egun, ertz sinplez eta hostotzarik gabe eratutako hiru dorretxo edo pinakulu banda-denez.

Dagoeneko oso aurrera egin zuelarik XVI. mendeak, edo amaitu eta gero agian, fatxadaren erdialde interesgarri hura suntsitu ondoren ireki zuten egungo atea, erdi-puntuakoa⁸⁷. Honen bazoaren erdibitzaile gisa, mainel bat, bi hutsune errektangeluar osatuz. Tinpanoan, frontoi bat, eta honen erdian Andre Maria Jasokundearen irudi bat, altuerliebean egina.

Cuando visitéis a la “muy noble”, “muy leal” y “Muy siempre gloriosa” ciudad de Fuenterrabía⁸⁵ – entrad en la iglesia parroquial de Santa María, uno de los monumentos más interesantes que atesora Guipúzcoa.

No busquéis fuera de sus murallas, cerca del mar, por donde se extienden las construcciones modernas. Entrad en el antiguo recinto fortificado, del que la iglesia forma parte, y como este no era grande, a pocos pasos que deis, después de pasar las antiguas puertas o por entre los restos imponentes de grandes muros derribados, daréis en la suntsuosa, consagrada, como la inmensa mayoría de las iglesias de España a la Madre de Dios.

Lo primero que hallareis, si acertáis a subir por la calle Mayor, será la fachada y bien pudiera suceder que os desilusionara un tanto.

Un gran muro, casi cuadrado, sin huecos alguno de fachada; solo rompe la monotonía de su extensión un enorme escudo heráldico que se ve a la derecha, cerca de la cornisa, terminada esta en aquél ángulo, por una balaustrada, detrás de la cual, algo retirado, se levanta el capitel de la torre aunque barroca, esbelto y elegante⁸⁶.

